

...eta
Kitto!

2019-IX-6

1110 zkia.

Agur eta ohore Arrateko Amari



matrikula
irailaren 27ra arte
ZABALIK

2019/20 EUSKARA IKASTAROAK

- A1, A2, B1, B2, C1 mailak (aurrez aurreko taldeak, autoikaskuntza eta online ikastaroak)
- Azterketak prestatzeko ikastaroak
- Hizkuntza eskakizunak: HABE, IVAP, Osakidetza, Irale
- Mintza-taldeak: titulua izan arren, euskara maila hobetu nahi dutenentzako pentsatuak

Sostoa 1, 1. solairua

Telefonoa: 943 201 379

eibar@aek.eus

aek



KANTABRIA
Jatetxea



EZKONTZAK BATAIOAK JAUNARTZEAK

www.kantabriajatetxea.com
kantabria@kantabriajatetxea.com

RESTAURANTE KANTABRIA
KANTABRIA JATETXEA

Arrate Gaina, 4 – 279 postakutxa – 20600 EIBAR
Telf. 943 121 262

ARRATEKO AMAREN JAIK 2019

irailak 7/8/15

antolatzailea:
EIBARKO UDALA



laguntzaileak:

ANDIRAO ELKARTEA, ...ETA KITTO!, BETIKUAK, EIBARKO KLUB DEPORTIBOA, KEZKA DANTZA TALDEA





Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkarte@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Mainer Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOAK: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Fernando Retolaza

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.250 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta intzieren erantzukizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZTA)**

Eskutitzak

47ak herrian! 11/13 makroepaiketarik ez!

Irailetik aurrera, 47 euskal herritar epaituak izango dira. Euren "delittoa" preso eta iheslarien egoerari irtenbidea ematen ahalegintzea, beste mila-ka euskal herritarrek bezala, konbentzimendu osoa baitzuten hori zela benetako elkarbizitza eta bake eszenatoki iraunkorra eraikitzeko egin zezaketen ekarpenik positiboena. Euren ekinbidea oztopatzeko asmoarekin espainiar estatuak hobeto egiten dakien moduarekin erantzun zuen: errepresioarekin. Denera 47 lagun dira, eta horien artean eibar-tar bat dugu: Ainhoa Baglietto.

Dagoeneko hasiak dira haien gaineko egoeraz informazioa ematen, sinadurak biltzen, irailaren 14rako manifestaziora deitzen, eta makroepai-

ketak ekarriko dituen gastuei aurre egiteko bonoak saltzen.

Eibarko Ezker Abertzaleak 47 kideei, eta bereziki Ainhoari, gure elkartasuna eta babesa eskaini nahi dizkie. Elkartasun horren lehendabiziko adierazpidea irailaren 8an, Arraten urtero egiten dugun kontzentrazioan, egingo dugu, hor 47 lagun horiekiko elkartasun eta babesa ezaugarritu nahi baitugu. Bigarren urratsa, berriz, irailaren 14an Bilbon izango den manifestaziora joatea izango da. Lerro hauetatik dei egiten dugu Bilboko manifestazio horretara joateko. Busez joan nahi duenak bere izena betiko tokietan eman dezala.

Eibarko Ezker Abertzalea

Eibar Eskubaloia: Mila esker guztioi

Eibarko Eskubaloi taldeak orain dela hilabete batzuk Bera Bera eta Rocasaren arteko emakumezkoen eskubaloi Superkoparen finala antolatzeko proposamena jaso zuen. Egoera aztertu eta, zeregina konplexua izan arren, erroka onartzea erabaki genuen, Eibarren eta ingurunean kirola berreskuratzeko urrats garrantzitsua izan zitekeela sinetsita. Desafioak merezi zuten.

Behin ekitaldia burututa, eta protagonista guztien oniritzia jaso ondoren, gure poztasuna agertu nahi dugu ondo egindako lanarekin eta lortutako helburuarekin. Ipuruan izandako partiduak, emakumezkoen eskubaloiko galak eta ondoren Coliseoan egindako gala-afariak estatuko eskubaloien erdian jarri dute Eibar.

Parte hartu duten talde eta erakunde (estatuko federazioak eta lurralde-federazioetan dauden klubetako zuzendariak) adierazpenak baieztatzen digute Eibarko hiria mailan egon dela eta, gainera, bere anfitrioi-eginkizuna bete duela. Hori ez zen posible izango babesleen laguntzarik gabe, bereziki Eibarko Udala, Diputazioa, Avia edo S.D. Eibar Fundazioaren kasuan. Oso garrantzitsua izan zen baita ekitaldiaren arrakasta ahalbidetu zuten boluntarioen lana.

Bere 18 taldeen kudeaketan eguneroko lana egiten jarraitzen duen Eibar Eskubaloi klubak eskubaloiarekin eta Eibar herriarekin hartutako konpromisoa berresten du eta aurrerantzean gure kirolak sasoi batean zuten goi mailara iristen ahaleginduko gara.

Eibar Eskubaloia

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MIXI / MIXIN.- Katua ume berbetan. "Han, beittu, mixi!".

MIZKIN.- Gutxi jaten duena, mikia. "Oso mizkiña mahaixan, jateko guztieri arpegi zimurra ipintzen detsa". Zekena, zikoitza. "Gizon mizkiña emoteko orduan".

astean esanak

"Alkohol pixka bat hartzeak on egiten duela lortu dute saltzea. Frogatuta dago ez dela egia. Baina botere ekonomikoa oso handiak daude atzean, eta badaude ikertzaile batzuk prest daudenak euren izena eta lana botere horien zerbitzura jartzeko. Eta alde dute guk ere hori entzun nahi dugula. Enpresa handiek zientzialariak eta dibulgatzaileak kontratatzen dituzte. Eta interesa baldin badauka esateko genetikoki manipulaturako landareak seguruak direla, kontratatuko du zientzialaria hori demostratzeko"

(ANA GALARRAGA, ZIENTZIA KOMUNIKATZAILEA)

"Euskaldunok kantura iristen garenean, Txoria txori ez dago besterik azken bolada honetan. Eta pentsa zer kantagintza historikoa dugun, ikaragarri zoragarria! Beste adibide bat: gure saiakerako pentsalari handienetako batek, Joxe Azurmendik, hanka bat kanpoan du aspaldi. Oharkabean pasatuko da, orain arte pasatu den moduan. Eta hirugarren adibide bat: nazioartean kolonialismoaren debatea dagoenean gori-gorian, azterketak inoiz baino sakonagoak direnean, iritsi da Elkanoren urteurrena, eta hemen denok beste aldera begira"

(AITOR ETXARTE, IRAKASLEA)

"Txinan diktadura zorrotza dago ezarria. Alderdi Komunistak agintea izan du azken 70 urteetan. Sare propioa dute eta txinatarrek ez dakite zer gertatzen ari den Hong Kongen, adibidez. Bestalde, Txinak ez du inolako informaziorik ematen, gure pribatutasuna ematen ari garen bitartean Txinako Gobernuari. Teknologia berriekin, 5G-rekin kasu, gure inguruko informazio osoa dute eskura. Horrela, munduko lehen potentzia izango da hamabost urte barru. Ameriketako Estatu Batuak beherantz joango dira. Europa eta Kanada sistema politikoaren bastoi izango dira"

(MONICA GARCIA, KAZETARIA)

BNI Armagin enpresa-taldiak 5 millioi euro fakturatu ditu hiru urtian

Eibar eta inguruko enpresak osatzen dabena BNI Armagin enpresa-taldiak 2016ko urrian bere burua aurkeztu ebenetik hiru urte pasau dira eta oin arteko emaitzekin pozik duguazela diñue kidiak: *"Hiru urte honetan lortu ditudun emaitzak, argi erakusten dabe egindako biharraren emaitza. Lantaldia oso harro dago lortu ditudun emaitzekin eta aurrera segitzeko indarra eta ilusiñua dakagu. Seguru gaoz urtia amaitzerako emaitzak gora egingo dabela, gaiñera. Diru kontuak albo batera lagata, etorkizunian bezero billakatu leikiazen enpresa eta pertsonekin 1.800 lan billera baiño gehiago egin ditudugula azaldu nahi detsagu jendiari. Izan be, hor dago biharra egiteko modu horretako onuretako bat, bezero barrixetara ailegatzeko emoten daben ahalmena hain zuzen be".* Oporrak amaituta, ohiko martxari helduko detse atzera be eta, baten batek kontaktuan jarri nahi izanez gero, armaginbni@gmail.com helbidera idatzi leike.



Minbizixaren Kontrako Alkartiak jaso ditu martxa solidarioan bildutako 17.790 euroak

Uztaillian emon zetsen AECC Minbizixaren Kontrako Alkartekuari ekaiñaren 22ko Minbizixaren kontrako Eibarko I. Lasterketari esker bildutako diru guztia, 17.790 euro, gaitzaren kontrako ikerketan erabiltzeko. Laguntzeko asmuarekin egin zan jardura Amaña es la Caña alkartekua antolatu eben, Eibarko Udalaren, SD Eibar Fundazioaren eta Alzola (Basque Water) enpresakuen laguntasunarekin. Zihetzago esateko, Nafarroko Unibertsitatean Ignacio Melero inmunologuak minbizixaren inguruan egiten diharduan lana diruz laguntzeko abiatu eben martxa, holan Minbizixaren Kontrako Alkartiak Gipuzkoan 160.000 euro batzeko bota eban erronkarekin bat eginda.



Surphase eta Ekolber enpresak eruan dittue Toribio Etxebarria sarixak

Uztaillaren 22xan banatu zittuen Eibarko Udalak eta BIC Gipuzkoak sustatzen dituduen XXIX. Toribio Etxebarria sarixak Teknikerren, Gurutz Linazasoro neurologuaren hitzaldixarekin hasi zan ekitaldixan. Aurtengo ediziñuan Ekintzailletza Barriztaizailliaren Toribio Etxebarria sarixak Donostiako Surphase eta Bergarako Ekolber enpresendako izan dira. Epaimahaixak 37 proiektu aztertu eta gero Enpresa Asmuak atalian sarixa Donostiako enpresari eta Enpresa Barrixa atalekua Bergarakuari emotia erabagi eban. Saridun bixak aurkeztu ditudun proiektuak ingurumen jasangarrixari lotutakuak dira eta bakotxari 10.500 euroko sarixa emon detse dirutan. Gaiñera, Ekolberrek Udalak emoten daben Sari Berezixa be jaso eban, Eibarren,



Tekniker Fundaziñuaren inguruan ezartzeko asmua erakutsi dabelako. Naziñoartekotze Sarixa, bestalde, Donostiako Natu Intelligencerendako izan da. Eta, amaitze-

ko, "Iñaki Goenaga 2019" errekonozimenduak Eibarren 1905ian sortutako BOJ eta Elgoibarko Alimek enpresari emon zetsazen.



Plazako basarritarrak Rialto barruan egongo dira karpa barrixa ipiñi arte

Merkatu Plazako basarritarren lan-bal-dintzak hobetzeko asmuarekin, Udalak **karpa sendo bat** ipiñiko dau Rialto eraikiñaren kanpoko aldiari. Holan, Andirao Eibarko basarritarren alkartiak sarritan eskatutakuari erantzun nahi detse. Aurreratu dabenez, basarritarren saltokixak babesteko ipiñiko dabenez egitura barrixa aluminio senduarekin egindakua izango da

eta bi isurkiko teillatuarekin estaliko dabe. Pare bat hilleko iraupena izango dabenez biharrak astelehenian hastekuak ziran, Diego S.L. enpresak egingo ditte eta kostua 46.416 eurokoa (BEZ barne) izango da. Astelehenaz geroztik eta karpa barrixa ipintzeko biharrak amaittu arte, basarritarrak Rialto barruan egongo dira euren produktuak saltzen.

autuan

MATRIKULAZIÑUA ZABALIK EUSKALTEGIXETAN

Euskeria ikasi nahi dabenez matrikulaziñua zabalik dago herriko euskaltegi bixetan. AEK euskaltegixan irailaren 27ra arte egin leike matrikula eta kurtso barrixa urriaren 1ian hasiko dabe. Informaziño gehixagorako euskaltegixan galdetu leike (Sostoaarren, 1), 943201379 telefonora deittu edo eibar@ae.eus helbidera idatzi (bulego ordutegixia 10:00etatik 13:00etara eta 16:30xetik 19:00etara da astelehenetik eguenera eta 10:00etatik 13:00etara barixakuetan). Eta Udal Euskaltegixan irailaren 25era arte egongo da zabalik matrikulaziñua. Informaziño gehixagorako euskaltegixan galdetu leike (Bista Eder, 10 Portalea), 943700912 telefonora deittu edo euskaltegia@eibar.eus helbidera idatzi (bulego ordutegixia 08:30xetik 14:00xetara eta 16:30xetik 19:00etara da, astelehenetik barixakura). Batian zein bestian mailla guztiak emoten ditte eta ikastaruak diruz lagunduta dagoz.

MUGIKORTASUNAREN EUROPAKO ASTEA IRAILAK 16-22

EGITARAUA



IRAILAK 16, ASTELEHENA

NORDIC WALKING BATAIOA (1.saiola)

Ezinbestekoa da alde zurretik izena ematea Ipuruko kiroldegian

(Gutxienez 6 pertsona eta gehienez 15)

* Epemuga: irailaren 13ra arte

* Bi ordutegi: 10:00-11:30 / 18:00-19:30

* Bataiorako tokia: Unbeko kiroldegia

IRAILAK 17, ASTEARTEA

HITZALDIA: Bizikletaz bidaiatzeko iriak

* 18:30 Portalea

* Hizkuntza: Euskara

IRAILAK 18, ASTEAZKENA

NORDIC WALKING BATAIOA (2.saiola)

* Bi ordutegi: 10:00-11:30 / 18:00-19:30

IRAILAK 19, OSTEGUNA

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN

MARTXA (IES UNI Eibar-Ermua BHI)

* 10:00-12:00 / Irteera: IES UNI Eibar-Ermua BHI

IRAILAK 20, OSTIRALA

• ESKULANEN TAILERRAK

• MOLTO ETA KARTS ZIRKUITUAK (2-12 urte)

• NORDIC WALKING MARTXA Aldez zurretiko

izen-ematea: 17:00-17:45 Ibilixanen ibilbide

gorria (4,03 km) Bastoien mailegua: 30 perts.

(NANA aurkeztu behar da)

* 16:00-20:00 Untzaga Plaza

* Irteera ordua: 18:00

IRAILAK 21, LARUNBATA

• AUTORIK GABEKO EGUNA (Udalbusa doan)

• BIGARRIN ESKUKO BIZIKLETEN AZOKA

• BIZIKLETAK KONPONTZEKO TAILERRA

* 10:00-14:00 Untzaga Plaza

Balkoiak eta leihuak apaintzeko II. lehiaketarako sarixak banatu ditu Udalak

Udalak, Debegesa garapen agentziarekin batera antolatutako "II. balkoiak eta leihuak apaintzeko lehiaketa-ko" sarixak julixuan banatu zittuen: 200 euroko lehen sarixa Rosa Garagarza Gurrutzagak jaso eban eta bigarrena, 150 eurokoa, Yolanda Bahamonde Rejok. Aurten 29 lagu-

nek hartu dabe parte eta Jon Iraola Hirigintza, Ingurumen eta Obra zinegotzixak emon zetsazen diploma eta sarixak irabazliari eta bigarren sarixa irabazi dabenaren semiarri, azken horrek ezin izan ebalako ekitaldixan egon. Bestalde, eskualde maillako sarixa (250 euro) Mutrikura jua da oinguan.



Jon Iraola ziñegotzixa sari-irabazliekin.

Erretziari lagatzeko laguntza-taldia antolatu dau AECC Gipuzkoak

AECC Gipuzkoa Minbiziaren Aurkako Elkartek erretziari lagatzeko laguntza-terapiarako taldea antolatu dau Eibarren. Saiuak doakuak izango dira eta tabakismuan aditua dan psikologo batek zuzenduko ditu. Aditerra emon dabenez, taldea osatzerakuan erabagiko dira egun eta orduak eta, parte hartzeko interesa dakenak, 943 20 24 94 telefono zenbakira deittuta edo alkartiaren lokalera juanda (Ardantza, 11) izango dau informaziño gehixago jasotzeko aukeria. Alkarteko ordezkariak emondako datuen araba-



bera, iaz Gipuzkoan terapia egin ebenen %62k amaittu eben prozesua arrakastarekin. Bestalde, erretziailierri tabakua lagatzen laguntzeko alkartiak mugikorretarako dakan 'RespirApp' aplikaziñuaren bertsio eguneratu barrixa etara dabela jakiñarazi dabe.

Hillaren 20ra arte emon leike izena Jabetze Eskolan

Udazkeneko Jabetze Eskolako ikastaruetan izena emoteko epia irailaren 20ra arte



egongo da zabalik. Eskinduko dittuen ikastaruak "Ofimatika guztientzat", "Amets egitea, sinistea eta sortzea", "Batera ibili gaitezen: espartin-tailerra", "Sabel dantza", "Gure bizi energia hobetzen: Chi-kung" eta "Autodefentsa Feminista" dira eta kurtso bakoxtari buruzko informaziño guztia Udalaren web orri-xan, eibar.eus/eu/berdintasuna-andretxea helbidian topauko dozue. Matrikula egitteko, barriz, Andretxeara edo Pegorara jua leike.

Debarrena Eskualdeko Mankomunitateak karguak barriztatu ditu

Udal barrixak eratu eta gero, Debarrena Eskualdeko Mankomunitateak eta Badesa soziedade publikuak euren karguak barriztatu dittue. Uztaillaren 26xan egindako bilkuran, erakunde bixetarako presidentia eta presidenteordia hautatu eta izendatu zittuen:

presidente kargua losu Arraiz (EAJ-PNV) Elgoibarko ordezkariak hartu eban eta presidenteorde kargua, barriz, Jose Luis Araujo (PSE-EE) ermuarrak. Kargu bakoxtarako hautagai bakarra aurkeztu zan eta aldeko 11 boto eta hiru abstenziñorekin egin zittuen izendapenak.



Josu Arraiz elgoibartarra izango da presidente barrixa.



Lucia Juarezek Restaurante Sin Barreras saio barriztatuaren parte

ETB2k laster estrenauko daben 'Restaurante Sin Barreras' saio barriztatuaren Lucia Juarez Simon eibartarra ikusteko aukeria izango dogu, programako beste zazpi parte-hartzaileekin batera. Iñaki Urrutiak aurkeztuko daben saioan desgaitasun intelektuala daken zortzi gazte izango dira protagonistak, eta sei asteko tartian, jatetxe bateko bihargiñak izateko preparau biharko dira. Prozesu osuan zihar gaztiak lehen maillako bi sukaldari, Luisa Lopez eta Iñaki Andradas, izango dittue lagun. Ikasittako guztia, gaiñera, finalerako egingo dan ekitaldi haundi batian erakutsi biharko dabe.

Itun Federalaren 150. urteurreneko hitzaldixak online ipiñi dittue

Ego Ibarra batzordiak aurtengo San Juanetan betezan Eibarko Itun Federalaren 150. urteurrenaren harira egin ziren hitzaldi eta ponentzia guztiak egoibarra.eus bere webgunian ipiñi dittu eskuragarri, nahi dabenak ikusi eta entzuteko moduan. Ekaiñaren 22xan egindako saio guztiak hiru zatitan banatuta plazaratu dittue, bideuan grabata: lehen zatixak federalismuaren iraganari eta etorkizunaru buruzko mahai-ingu-

rua biltzen dau, Alberto Lopez Basaguren, Antonio Rivera eta Zulima Perez i Segui hizlari dittuala; bigarren zatixan, barriz, Antxon Narbaiza Azkuek eskindu eban "Eibar-tarren portaera errepublikanoak: Vicente Aguirre, Echeverria, Ortiz de Zarate, Ibarzabal eta beste hainbat" izenburukua bildu dabe; eta azken zatixan Carme Valls-Llobet, Jesus Ruiz-Huerta, Juan Puig de la Bellacasa, Zulima Perez i Segui, Santiago Coe-



Carme Vals-Llobe hitzaldixa emoten.


Ilo eta Lurdes Auzmendi federalisten berbak jaso dittue, 2019ko Eibarko Itun Federala

(1869-2019) goguan siñatu eben "Itun Federal Berria" dalakuarekin batera.

1979xan jaixotakuen jairako izen-emotia zabalik dago

Iraillaren 21ian alkartuko dira 1979. urtitan jaixotako eibartarrak, eguna jai giruan pasatzeko asmuarekin. Antolatu daben programia 12:00xetan hasiko da, Toribio Etxebarria kaletik San Andres elizara igotzeko eskillarretan alkartuta. Handik luntxa hartzera juango dira eta, jarraixan, txikiteuan ibilliko dira, bazkaltzeko ordua aillegau arte. Bazkarixa Unzaga Plaza hotelian izango da eta jaixa girotzen DJ batek jardungo dau. Arratsaldeko 19:00etan, barriz, atzera be tabernarik tabernara ibilliko dira, txaranga batek lagunduta eta, egunerako plana biribiltzeko, zeozer afaltzeko aukeria eukiko dabe animatzen diran guztiak. Parte hartu nahi dabenak 90 euro sartu biharko dittue Kutxabanken, 2095 5035 00

9119053663 kontu korrantian, izen-abizenak argi azalduta. Informaziño gehixagorako zein zalan-tza argitzeko Facebooken sortu daben 'Quintada del 79' taldiarekin bat egin leike.



Amuarraiñak Ego errekin

Firestone parian etaratako argazkixak erakusten dabenez, Ego errekiak bizixa hartzen doia gurian. Ez da seiñale txarra! Ea uda-kontua bakarrik ez dan, eta hamendik aurrera be bizi arrasto gehixagorekin egitten dogun topo.

MARIA LUISA SERAL AXPE

(ABUZTUAREN 15EAN HIL ZEN, 86 URTEREKIN)



"GUREKIN EZ BAZAUDE ERE,
INOIZ EZ ZAITUGU AHAZTUKO"

Senarra: Angel Elola Garate
Seme-alabak: Lidia eta Iñaki, Eli eta Reme, Idoia eta Curtis



Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformako kidea da Itziar Fernandez elgoibartarra eta, horrez gain, ekologia eta feminismoaren alde borroka egiten du buru-belarri. G7-aren aurkako kontra-gailurrean bozeramaile lanak egin ditu, G7-ak ordezkatzeko duen sistemaren aurrean alternatibak planteatuz. Urtebeteko lana egin du kontra-gailurra prestatzen eta egun mugituak bizi izan ditu abuztu amaieran.

ITZIAR FERNANDEZ (G7 EZ plataforma):

“G7-aren aurkako kontra-gailurrak alternatibean gailurra eraiki du”

- Kolore eta ikuspegi ezberdinetako eragileak bildu zarete kontra-gailurra prestatzeko. Nolako lana izan da?

Bi plataforma ibili gara lanean. Biak batera, baina bakoitza bere ezaugarriekin. Batetik, frantziar estatuan sortutako Alternatibea G7; eta bestetik, Euskal Herrian eratutako G7 EZ. 2018ko irailean hasi ginen lanean eta bi astean behin bildu gara. G7 EZ plataformaren barruan Hego eta Ipar Euskal Herriko eta atzerriko (Espainia, Alemania...) elkarte, herri mugimendu, sindikatu eta mugimendu politikoak batu gara, guztion ikuspuntuak aintzat hartuta elkarrekin egin beharreko bidea zehaztuz. Estatu frantseko aginpideak eta Irungo alkateak, besteak beste, oztopo ugari jarri dizkigute, baina aurrera egin dugu. Oso pozik gaude sare sendo bat eraikitzeko gai izan garela, aurrera begira batez ere. Kontra-gailurra pasatu da, alternatibak ditugula ikusi dugu, baina sare hau sortzeari garrantzia eman behar diogu. Egitaraua guztion gustora diseinatzeko adostasun batera iristeko gai izan ginen (nahiz eta gauza batzuk kanpoan geratu diren) eta horrek balio handia du.

- Nolako egunak bizi izan zenuzuten kontra-gailurrean?

Oso biziak. 50 hitzaldi baino gehiago, tailerrak eta beste hainbat ekintza egin ditugu (Ficoban gehienak) eta alde batetik bestera korrika ibili bagara ere, lana ondo bete dugu. Guzti hau hasi aurretik demaseko kriminalizazioa egin da kontra-



gailurraren aurka eta Eusko Jaurlaritzak zeregin handia izan du kontu horretan. Gizartean demaseko beldurra eragin du jendeari muga ez pasatzeko esanez, kamioiak La Jonquera bidaliz... 4.000 ertzain bidali zituen mugara! Eskandalagarria da euskaldunon dirua horrela erabiltzea. Kontra-gailurraren mugimendua deslegitimatua nahi zuten bortizkeria erabiliko genuela esanez, nahiz eta euren ondo jakin plataforma barruan adostu genuela ez genuela probokatuko ezta probokazioei erantzungo. Eta zer esan Macronen gobernuaz. Ez dira herritarrengandik aparte bi-

“Kontra-gailurra oso duina, oso ondo antolatua eta arrakastatsua izan da”

zi, beste galaxia batetan bizi direla dirudi. Ipar Euskal Herriko kostaldea suntsitu dute, erabat bunkerizatuta egon delako.

- Egoera horren aurrean zuen programa gauzatzeko arazorik izan zenuzuten?

Prestatutakoa egiteko aukera izan dugu eta gaur gaurkoz esan dezakegu kontra-gailurra baino zerbait gehiago egin genuela. Kontra-gailurrak alternatibean gailurra eraiki du. Kontra-gailurrak irauten zituen hiru egunetan hausnarketa egin nahi genuen eta hortik ondorioak atera, baina ez betiko aldarrikapenak, baizik eta behar diren aldaketa estrukturalak.

- Nolako izan da jendearen erantzuna?

Azken egunean, adibidez, 6.000 lagun inguru egon ziren kontra-gailurrean. Kanpamenduan 2.000 pertsona baino gehiago egon dira eta oso ongi

funtzionatu du. Manifestaldia, bestetik, arrakastatsua izan zen. Jende asko ez zen etorri erakundeek eta hedabideek eragindako beldurraren ondorioz, demaseko borroka egongo zela pentsatuz, baina ikusi zen bezala ez zen ezer gertatu eta askok esan digute pena eman zielo ez joateak.

- Protesta ez biolentoa egiteko hautua egin zenuzuten. Zergatik?

Kontra-gailurra prestatzeko 6-7 orduko bilerak izaten genituen, berba asko egin genuen eragile guztion artean eta kontra-gailurrean gure portaera nolakoa izan behar zen zehazten duen dokumentua eratu genuen. Bitartekaritza batzorde bat sortu zen iskanbilaren bat gertatuz gero jarduteko, baina ez zen horretarako beharrik egon. Kontra-gailurreko hitzaldi edo tailerretan jendea libre izan zen pentsatzen zuena esateko, eztabaida eraginkor eta egokiak sortu ziren, eta kontra-gailurraren barruan ez zen bortizkeria arazorik egon. Uste dut kontra-gailurra edo alternatibean gailurra oso duina, oso ondo antolatua eta arrakastatsua izan zela. Gainera, garbi geratu zen lanerako ildoak nondik joan behar diren.

- Zeintzuk dira proposatutako alternatibak?

Datorren astean batuko gara kontra-gailurrean atera ziren ideia eta alternatibak ordenatu eta zehazteko, beraz orain zaila da zerbait zehatza esatea. Hala ere, esan behar da G7-an nazionalistak, bankuetako eta beste hainbat erakundetako ar-

duradunak bildu zirela munduko zazpi herrialde aberatsenetako buruzagiez gain. Horrelako gailurrak negozioak egiteko erabiltzen dituzte. Gu beste mundu baten alde gaude eta argi dugu bertan bildu zirenen kontra egin behar dugula, eurak direlako planeta suntsitzen dutenak. Munduko hainbat lurralde espoliatzen dituzte eta hortik datoz klima eta ingurumenaren arazoak. Bestetik, pentsatzen dugu feminismoa ardatz bat izan behar dela beste mundu bat eraiki nahi badugu. Gainera, herrien aniztasuna eta askatasunaren inguruan ere lan egin dugu neokolonialismoa salatuz. Gerrak

eta inperialismoa oso presente egon dira kontra-gailurrean, migrazioak bezala, eta baita demokrazia soziala nola izan beharko litzatekeen ere. Zazpi ardatzen inguruan mugitu gara eta kapitalismoaren alternatibak zeintzuk izan daitezkeen ikusi dugu. Orain horren inguruan lan egitea geratzen zaigu.

- Ongi Etorri Errefuxiatuak elkarteko kidea izanik, migrazioaren gaia gertutik ezagutuko duzu, ezta?

Migrazioari alternatiba bat eskaini behar zaio. Pertsona guztiek eduki behar ditugu eskubide guztiak eta migrazioak beharrezkoak dira. Mendebaldetik



Dani Blanco

sortzen ditugun arazoengatik migratzen du jendeak, baina hemen era bateko migrazioa bakarrik nahi dugu, ondo hezitako jendearena, eta funtzionalak ez diren migratzaileak Mediterraneo erdian geratzen badira, hobeto. Migratzaileek ez dute euren herrialdea uzten horrela nahi dutelako, behartuta baizik. Bestetik, ikusten dugu nola kriminalizatzen den migratzaileekiko elkartasuna (adibidez, migratzaileak salbatzeagatik 20 urteko kartzela zigorra ezarri nahi dioten Miguel Roldan Sevillako suhiltzailearen kasua).

- Esan bezala eragile, herri mugimendu eta mugimendu politikoko askoren elkarlana izan da kontra-gailurra. Alternati-

baren bidea hasia da dagoneko?

Lortu dugun sarea mantentzea eta gehitzea da gure asmoa, kontra-gailurrean eztaba datu eta adostutakoa landu eta garatzeko. Datorren asteko bileran horri forma emango diogu eta hemendik aurrera egin beharrezkoak zehaztuko ditugu borrokan jarraitzeko. Izan ere, borroka egiten ez badugu, alternatibak paper errean geratuko dira. Jende asko hurbildu zaigu kezkatuta, kezkatuta egoteko arrazoiak ditugulako (klima-aldaketa, desberdintasunak, gerra inperialistak, indarkeria matxista, migrazioa, langileria bizi-tza prekariora...). Mundua egotera larrian bizi da.



Dani Blanco

info@gerritek.net
www.gerritek.net

SOLUZIO INFORMATIKOAK

Marka guztietako zerbitzu teknikoa eta salmenta

Neurrira egindako software-aren garapena

Gerritek
INFORMATIKA

Txaltxa-Zelai, 4-6 Tel: 943-033892

 **Link Idiomas**
Juan Gisasola, 5
943 20 39 59
www.linkidiomas.com
MEMBER OF CAMBRIDGE ESOL CENTRE ES438

– INGELESA –
klaseak goiz eta arratsaldez

UME, GAZTE ETA HELDUENTZAT
TALDE MUGATUAK

BAKOITZARI EGOKITUA

ERREKUPERAZIOAK, ESKOLARAKO LAGUNTZA

CAMBRIDGE AZTERKETETARAKO PRESTAKETA
MAILA GUZTIAK

Cambridge English Language Assessment

Exam Preparation Centre

 **ALTE**

Aparteko gorabehera bariko uda izan da aurtengoa

Aurtengo udan ez da gorabehera handirik izan herrian. Urteroko martxan, uztaile eta abuztuan jende eta trafiko gutxiago egoten dela aprobetxatuta herriko hainbat tokitan konponketa lanak egin dituzte eta, ibilgailuen martxari gehien eragin dietenak Barrena kalean, Calbetonen eta Santaiñes kale inguruan egindako obrak izan dira. Uztailean hasi zituzten Barrena kaleko kanalizazioak berrietzeko lanak eta, horien eraginez, errepidea mozten ibili dira, txandaka norantza bietan. Hori dela eta, normalean baino trafiko motelagoa egon da kalean eta, tarteka, auto ilarak ere sortu dira.

Abuztuaren 5az geroztik trafikoarentzat itxita egon den Calbeton kalea, berriz, astelehenean zabaldu dute ibilgailuentzat. Aurreko hilean hasi zituzten lanei esker laster koexistenzia-gune berria egongo da prest Calbetonen, 17. zenbakian dagoen botikatik hasi eta 26. zenbakira bitartean. Horrela, gune berriak bat egingo du oinezkoek eta besteek erabiltzeko lehendik eginda dagoen zatiarekin, hau da, San Andres eliza parean hasten den zatiarekin. Udalak orain dela aste batzuk adjudikatu zizkion obrak Obras Especiales, Edificacion e Infraestructuras enpresari 264.177 eurotan (BEZa barne) eta 19 asteko epean amaituta egon beharko dira lanak. Eta Ipurua foball zelaian egiten ari diren lanengatik, Santaiñes kalea itxita egon da abuztuaren 12tik 26ra bitartean.

Oporrek, beroak eta beste hainbat faktorek herriaren ohiko erritmoari eragiten diotela begibistakoa da eta udan beharrezan jardun duten udaltzainek euren lana ere asko aldatzen dela diote, bestela urtean zehar egiten dutenarekin alderatuz gero. Esandakoaren arabera, Udaltzain-



Calbeton kalea astelehenean zabaldu zuten ibilgailuentzat eta egindako lanei esker laster koexistenzia-gune berria egongo da prest.

gora joan edo deitzeko arrazoi nagusiak obrak eragindako eragozpenak, kalean gertatutako liskar eta borrokak eta telelarma zerbitzuaren abisuak izaten dira. Hala ere, oraingoan bada berezitasunik: eskailera mekanikoak eta igogailu publikoak beste batzuetan baino askoz ere gehiago matxuratu dira. Udaltzainek emandako datuen arabera, 2018ko udan horrelako hamar abisu jaso zituzten eta aurreko urtean, berriz, 40, abuztua amaitzeko oraindik egun batzuk falta zirela, gainera. Horrekin batera, liztor eta erleek eraginda jaso ohi dituzten kasuak ere nabarmen igo dira (18tik 30era) eta gauza bera gertatu da tabernetako zaratarengatik jaso dituzten kekek (10etik 30era).

Jendetza kanpoko igerilekuan

Beroarengandik ihesi Ipuruako kanpoko igerilekura doazenen kopuruak ere gora egin du, iazko datuekin alderatuz gero:

aurtengo ekainean 13.400 lagun erregistratu zituzten (iazko ekainean 9.800 erabiltzaile egon ziren); uztailean, egun askotan egin zuen beroak eraginda, 25.100 erabiltzaile izan zituen (iaz, 17.692 erabiltzaile). Gauzak horrela, aurtengo denboraldian orain arteko marka guztiak hautsi ditzakete, bakarrik abuztura arteko datuen arabera 38.500 erabiltzaile izan dira eta. Horrengatik, kanpoko igerilekuak Arrate egunean denboraldia agurtu orduko, 2015. urtean egon ziren 44.400 erabiltzaileen marka gaindituko duela aurreikusita daiteke.

Eta kulturari lotutako ekimenen inguruko datuak ere onak izan direla azpimarratu beharra dago: uztailearen 8tik 28ra bitartean Untzagan ikusgai egon zen "Pradoko Museoa kaleetan" erakusketak 40.000 bat lagunengana bisita jaso zuela kalkulatu dute Udalean eta Untzagan eskaini dituzten udako zine emanaldietara ere jende ugari gerturatu da.



MANU FERNANDEZ GOIKOETXEA

5. URTEURRENA: 2014-VIII-4

**EZ EGIN NEGARRIK AMAITU DELAKO;
 IRRIBARRE EGIN BIZI IZAN DUGULAKO.**

Zure kuadrila

Oihane Perez Calle (boluntarioa Marokon):

“Orain arte egin dudan gauzarik onena izan da”

Marokora boluntario moduan joatea orain arte egin duen gauzarik onena edo onenetakoa izan da Oihanerentzat. 25 urteko eibartarrak itzulpengintza ikasketak egin zituen, eta ingeles eta euskara irakaslea da Aldatze ikastetxean. Bidaiatzea betidanik gustatu zaio, eta aurten zerbait berezia egiteko gogoia zeukan. Interneten boluntariotzan jarduteko dauden aukera desberdinak bilatzen hasi zen eta “Initiative Association without borders” aurkitu zuen. Marokoko Atlasean, Tazouka eta Midelt eskualdeko ume eta gazteei laguntzeko hezkuntza proiektuak dituen GKE bat da. Baliabide gutxi dituen erakundea da eta egiten duten lana ezagutzera eman nahi du Oihanek.

- Nola ezagutu zenuen erakunde hau?

Interneten bilatzen hasi nintzen eta intuizioak eraman ninduen “Initiative Association” aukeratzera. Irakaslea naizenez zerbait eman nezakeela pentsatu nuen. Ingeleseko klaseak ematera joan nintzen, baina denetik egin nuen: eskola margotu, foballean jolastu, sukaldako lanak... Elkartearen izena ingelesa izan arren, boluntario guztiak Espainiakoak, eta gehienak Euskal Herrikoak ginen. Bi aste egon nintzen uztailean.

- Nola funtzionatzen zuen eskolak?

Elkarte honek ikastetxe bat dauka ikasurte osoan zehar beste leku batean, eta nik ezagutu ditudanak “Udako kanpamentuak” edo antzerako zerbait dira. Hizkuntzeekin hasi dira, baina irakasle gehiago lortzea eta hezkuntza proiektuak zabaltzea da asmoa. Dena dela, momentu honetan premia handiena hizkuntzak direla uste dute. Oso herri txikia da, eta ikastetxe publikoa oso mugatua dago. Hizkuntzak lantzeaz gain, beste jarduera batzuk ere egiten dira: kirola, jolasak...

- Ume asko zegoen eskolan?

Gaztelera ikasten bi talde zeuden, umeak eta gazteak, eta ingelesean 8 urtetik 18

urterakoak. Batxilergoko ikasle bat kenduta, besteek ingeles maila oso oinarrikoa zeukaten. Kasu batzuetan, 16 urterekin lanean daude (neskak batez ere), ez dira eskolara joaten, eta uda aprobetxatzen dute ikastera joateko.

- Nolako da hango egoera?

Pobrezia handiko ingurua da. Batzuen-tzat heburua Espainiara heltzea da, baina beste batzuk badakite euren herrian gertuko direla betirako, handik irteteko aukerarik gabe. Ez daukate ezer. Hala ere, euren etxera gonbidatzen zaituzte eta beti daukate zerbait emateko, tea, pastak, gozokiak... Gogorra egiten da. Ikusten duzu etxeak ez daukala ezer, bakarrik mahai bat eta lau aulki, baina, hala ere, beti daukate eskaintzeko zerbait. Kulturala da. Asteburuan basamortura joan ginen txango bat egitera eta hango nomadek berdina jokatu zuten gurekin. Lanaz aparte, boluntarioek denbora librean izaten dugu eta hainbat ekintza egiteko aprobetxatzen dugu: haman, sukaldaritza, arabeko eskolak, trekking, henna, musika afrikarra, etab.

- Motxila esperientziekin beteta ekarri duzu, beraz.

Zoragarria izan da, bizitzan egin dudan gauzarik onenetakoa edo onena. Gauza bat da pentsatzea eta bestea bertan egotea. Hemen, Aldatzen lanean nagoenean, behar dudan guztia daukat, baina han ez daukate ez koadernorik ez arkatzik. Koaderno bat izatea luxu bat da. Umeak egunero etortzen ziren arropa berberarekin. Askok pijamarekin etortzen ziren, zeukaten bakarra zelako. Bidaiatzea beti gusta-



tu zait, eta kulturak ezagutzeko modu on bat da hau. Eibarren Marokoko ikasleak ditut, eta bidaia honi esker hainbat gauza ulertu ditut.

- “Initiative Association” erakunde txikia dela esan duzu.

Bai, eta euren jarduna eta helburuak ezagutzera eman nahi dituzte. Baliabide gutxi dituzte. Sortzaileak bertakoak dira, Abdu eta Redouane. Ikasteko aukerarik ez zuten izan, eta horregatik sortu dute elkarte. Euren etxean egon ginen. Ni udan joan naiz, baina urte guztian egin daitezke bidaia solidarioak. Informazioa www.initiativeassociation.com webgunean lortu dezakezue, horrela nahi izanez gero. Nire txandan 18-25 urte bitarteko gazteak egon ginen, baina aurreko txandan ama-alabak eta familiak egon ziren. Beraz, denontzako zabalik dago.



Astelehenan, irailaren 2an, "Ahotsak" Euskal Herriko korurik onena bilatzen duen programa estreinatu zen ETB1an. Lehengo saioak izan zuen audientziarekin pozik daude arduradunak. Eibarren jakingura handia sortu da Eibarko Koro Gaztearen parte-hartzea dela-eta. Julian Iantzi aurkezleak astelehenero gidatuko ditu gelditzen diren 7 saioak eta amaierako final handia. Berak kontatu dizkigu programaren nondik norakoak eta eibartar gazteen papera lehiaketan. Bere izakera saltseroa dela eta, gauza asko ditu buruan "El Conquis"eko aurkezleak, eta udan Australiara egin duen bidaia kontatu digu emozio handiarekin: 60. hamarkadan Australiara lanera joandako euskal diasporaren inguruko dokumental bi ditu eskuartearen Kalifornian jaiotako lesakarrak.

JULIAN IANTZI

(AHOTSAKeko aurkezlea):

"Eibarko Koro Gazteak emanaldi ikaragarri polita eskainiko du"

- **Astelehenan estreinatu zenuen "Ahotsak". Nola erantzun du publikoak?**

Oso pozik gaude. Alde bate-tik, koro mundua ez da erraza, ez daude telebistan agertzerak eta lehiari ibiltzerak ohituak, eta 24 koruren parte-hartzea lortzea, pozik egoteko modukoa da. Harritura gaude hasierako programaren audientziarekin, katearen audientziaren batzabestekoa bikoiztu genuen, %3,4 hain zuzen ere. Kriston audientzia! Flipatzen nago!

- **Hurrengo saioetan ikusiko dugunaren islada izan zen?**

Oso estilo desberdinak ikusiko ditugu "Ahotsak"en: pop, rock, gospel, musika tradizionala, euskaraz, erdaraz, frantsesez, ingelesez... Egia da lehenengo programan nahiko kantu lasaiak entzun genituela, baina aurrerago ikusiko denez batzuk oso gauza potente eta diferentek egiten dituzte.

- **Eibarko Koro Gaztea ere hor ikusiko dugu.**

Bai horixe! Oraindik ezin dugu zehaztu zein saiotan azalduko diren eibartarrak. Eurak has-tekoak ziren, baina azken momentuan ordena aldatu zuten.



Julian Iantzi aurkezleak eta Hibai Etxebarria musika adituak gidatuko dituzte saioak. Astero gala leku desberdin batean egingo dute.

Azken egunetan beste aldaketaren bat egin dute eta datorren astelehenean Gasteizko gala emango dute. Atarrabia, Trapagaran eta Getariako (Lapurdi) abesbatzak izango dira lehiari. Beraz, eibartarrak ikusteko apur bat itxaron beharko duzue. Grabazioak Sanjuanak aurretik egin ziren –dena grabatuta baitago– eta Eibarkoak Elorrioko galan egon ziren beste bi korurekin lehiatzen. Aurreratu dezaket oso saio potentea izan zela eta eibartarrak ederto aritu zirela. Emanaldi ikaragarri polita eskaini zigiten. Abestu zuten biga-

rren abestiak oilo-ipurdia jartzen du. Esango nuke programa osoko onenetako izan zela. Ikusiko duzue! Ezin duzue galdu!

- **Leku desberdinetan grabatutako 8 gala izango dira. Eta azkenik, final handia.**

Astero leku ikusgarri batean izango gara (Bermeon izan ginen astelehenean, eta aukeratutako beste lekuak Zarautz, Ordizia, Hernani, Elorrio, Lekeitio, Lizarra eta Gasteiz izan dira). Gala bakoitzean 3 talde lehiatuko dira eta bakoitzak 3 kantu eskainiko ditu: lehenengo biak eurek aukeratutako leku

Angelita Ugarteburu Totoricagüena

2019ko abuztuaren 20an hil zen, 87 urterekin



**"Ez agurrik, ez adiorik, gero arte baizik.
 Gure bihotzetan beti maite izango zaitugu"**

Familiaren izenean, **ESKERRIK BEROENA** gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi.

ETXEKOAK



batean grabatutako bideoklipak dira, oso ondo landutakoak, eta hirugarren kanta galako egunean bertan eskaintzen dute. Azken interbentzio hori da erabakigarriena irabazteko lehian. Dena eman behar dute hor. Final handia Donostiako Saguesen izango da.

- Oraingoan zu ez zara programako "gaiztoa". Horretarako Hibai Etxebarria musika kritikaria jarri duzue...

Hibai da honetan aditua eta berak ikusten ditu guk ikusten ez ditugun gauza asko. Alde teknikoak berak kontrolatzen ditu, eta gauza asko hartzen ditu kontuan. Enpatea, esate baterako, zer da hori? (jajaja). Dena dela, berari esker asko ikasten ari naizela esan behar dut. Kriston meritoa daukate koruek. Biren artean abestea ez da erra-

za, ba pentsa 10, 15 edo 20 lagunen artean.

- Emakume asko ikusi genituen aurreneko programan.

Era askotako taldeak ikusiko ditugu lehiaketan, baina konklusioa da emakumeak aritzen direla gehienbat koruetan. Gizonzkoek kuadrilan eta talde txikietan abesten dute, baina koruetan ez dira larregi animatzen. Askotan ahots grabaeak faltan botatzen dira. Gazteen artean Euskal Herrian oso talde potentek daude. Eibarko Koro Gaz-

“Emakumeak aritzen dira gehienbat koruetan. Ahots grabaeak faltan botatzen dira”



Programako bideoklipak estetikoki oso erakargarriak dira.



Eibarko Koro Gaztea "Ahotsak"-en ikusiko dugu, Euskal Herriko beste 24 talderekin batera.

te ikustea besterik ez dago. Hain gazteak eta ze ondo abesten duten!

- Erronkak gustatzen zaizkizu zuri...

Musika saioretan ibilitakoa naiz, baina koruen mundua deskubrimendu bat izan da. Gure asmoa koro mundu hau ezagutzera ematea da. Telebistari esker lortzen badugu koruei bultzada ematea, perfektu! Azkenean musika gauza ederra da, musikak batzen gaitu. Gure etxean musikarekiko zaletasun handia izan da beti, eta asko abestu dugu. Baina, egia esan, nire aita izan zen artzaina eta ni ardi beltza, eta abesteko ahaleginak egin ditudan arren beti izan naiz "pakete" bat.

- "Ahotsak" alde batera utzita, berriki Australian izan zara, 60. hamarkadan bertara lanera joandako euskaldunei bu-

ruzko dokumental batzuk eginen ETBrako.

Garai hartan euskaldun asko azukre-kañabera edo tabakoa lantzera joan ziren Australiara. Nire aitaren moduan Ameriketara joan ziren artzainei buruz asko dakigu, baina Australiakoz gutxi hitz egin da. Memoria historikoa berreskuratu nahi dugu. Euskal Australiar Elkarte bi sortu dira Euskal Herrian, bat Nafarroan eta bestea Bizkaian. 18 eguneko bidaia egin dugu 50 lagunek, euren guraso eta aiton-amonak joan ziren lekuak ezagutzeko bidaia. Cairnsen hasi da eta Sydneyn bukatu dugu. Inghan, Townsville, Ayr, Home Hill eta Brisbanetik pasatu ondoren. Laneko bidaia izan da, baina baita turistikoa ere, eta batez ere oso emozionantea. Dokumentalak ETBn ikusi ahal izango dira.

*pedro alberdi*

Arrate eta Urkoren entrenatzaileak, SD Eibarkoak ez bezala, beti berberak ez ezik, eibartar peto-petoak ziren; gainera, entrenatzaile arrakastatsiak

Alberto eta Pello

Garai batean, gu Ipuruara partiduak ikustera joaten hasi ginenan, SD Eibar Hirugarren Mailako talderik onenetakoa zen. Hala zioten adituek, behintzat. Ordurako, bost bat aldiz ere galduta zuten Bigarren Mailara igotzeko promozio-kanporaketa. Bi igandez behin aritzen zen Ipuruan. Libre utzitako igandean, Urko jubenilak hartzen zuten haren lekua berdegunean. Urko ere punta-puntako taldea zen: Liga irabazteko hautagai nagusia urtero. Ligaren ostean, sasoiaren arabera, Gipuzkoako Txapelketa zein Espainiakoaren kanporaketak izaten zituen zain. Beste jubenilak, Arratek, oso-oso gutxitan jokatzen zuten Ipuruan. Haren helburua bestelakoa zen: Txantxelaiko jokalaririk onenak bildu, zelai handian jokatzen trebatu eta Urkora jauzi egiteko prestatu.

Arrate eta Urkoren entrenatzaileak, SD Eibarkoak ez bezala, beti berberak ez ezik, eibartar peto-petoak ziren: Alberto Albistegi eta Pello Muniozguren. Biak urte berean jaiok, biak familiaburu,

biak SD Eibarko jokalaria ohi, biak Alfako behargin, biak auzokide, ... Ipurua futbol zelaiaren ate nagusiaren ondo-ondoan bizi ziren. Entrenatzaile arrakastatsiak, inondik ere. Pelloren Urko, esaterako, Gipuzkoako txapeldun suertatu zen 1969an, eta Albertoren infantilak Espainiako txapelketako hirugarren postua eskuratu zuen 1971n. Hala ere, haien lorpenik handiena, beharbada, SD Eibarri egindako jokalaria-aportazio paregabea izan zen: Castañon, Beistegi, Gisasola, Amutxastegi, Diego, Esnaola, ...

Futbolak bizi zituen, eta Ipuruako aldagela zuten bizigai: hango usaina (lixibaren, linimentoaren, izerdi ustelaren eta masaje-xaboiarenaren nahas-mahas halakoa), hango hotsak (burdin-nezko takoek, komuneko kateak-eta egindakoak), hango lurruna (dutxa kolektiboek sorrarazia), ... Haiiek arropaz aldatu eta *txandalean* ateratzen zirenean, mundua piztu egiten zen euren inguruan.

*arantza mata*

Gaur arte balio izan digun metodologia irauli egin behar dugu, gaur egungo ikasleriaren ezaugarrirei eta beharrei erantzuteko

Aniztasuna ikastetxeetan

XX. mende bukaeran genuen gizartearekin alderatuta, XXI. mendeko gizarteak beste une sozial eta historiko batean kokatu gaitu. Ezaugarri gisa, aipatuko dugu mende hasieran inmigrazioak gora egin zuela, eta horrek gizarte-integrazioa lortzeko eragin ditzakeen zailtasunak ekarri ditu. Beraz, aniztasuna eguneroko bizitzaren parte den neurrian, ikastetxeetan islatzen da eta ikastetxeko errealitate bihurtu.

Begi bistan dago gizartea aldatu egin dela eta horrek aldaketak ekarri ditu eskolako xede eta helburuetara; are gehiago, herriak eta horien islada diren hainbat ikastetxek azken urteotan izan duten etorkin etorrera nabaria kontuan izaten badugu. Gaur egun, ikasgela batean hainbat herrialdetako ikasleak aurki ditzakegu, horrek dakarren konplexutasun guztiarekin.

Beraz, ikastetxeek bizi ohi duten errealitate berri horretara egokitzeko ezinbestekoa da elkarrekin bizitzen ikastea eta aniztasuna taxuz kudeatzea. Esan dezakegu gaur egungo gizarteak duen ikasketarik garrantzitsuenetarikoa bat dela.

Halaber, aniztasunari egoki erantzuteak ahalegin handia eskatzen du; hots, ikasleen aniztasuna erronka berria bihurtu da gaur egun hainbat ikastetxeetan. Eta, aniztasunaz hitz egiten dudanean, ez da bakarrik kultur aniztasunari dagokiona: hor daude ere hizkuntza, erlijioarena, sexu aukerarena, sinismenena, gaitasunena...

Ondorioz, irakasleek aniztasuna bere osotasunean kudeatzeko, baliabideak eta prestakuntza ezinbestekoa dutela argi dago, baina ikastetxeek begirada inklusiboa izan behar dute eta ikasle bakoitzaren gaitasunak ahalik eta gehien garatzen ahalegindu behar dira. Horretarako, hezkuntza komunitateek hausnarketa sakona egin behar dute, planteamendu orokor bat antolatzea komeni da eta guztiok partaide izatea: irakasleak, ikasleak, familiak... Eta gaur arte balio izan digun metodologia irauli egin behar dela zalantzarik ez dago, ikasleak konpetentzietan hezi behar ditugu eta, nola ez, motibatuta jarraitu dezatela, metodologia anitzekin bide anitzak bilatuz, alegia, gaur egungo ikasleriaren ezaugarrirei eta beharrei erantzuteko.

LUJANBIO, EGAÑA, LIZASO eta IGUARAN izango dira bihar gaueko bertso-afarian

Arrate bezperak bertso doinuekin girotzen dira. Sebastian Lizaso eta Andoni Egañak begiak itxita igo dezakete Arratera, aurten euren 24. eta 23. aldia izango dutelako '...eta kitto! Euskara Elkarteak' Kantabria jatetxean antolatzen duen bertso-afarian.

Bertsolari handi horiekin batera ibiliko da kantuan gaur egun bertsoaritzak duen izen handiena, Maialen Lujanbio. Bertsolari Txapelketa Nagusiko azken irabazlearen 11. aldia izango da Kantabriako bertso-afarian, Gregorio Larrañaga 'Mañukortak' baino edizio bat



Egaña bertsoa botatzen iazko bertso saioan.

gehiago. Bertsolarien zerrenda borobiltzeko Kantabrian debuta egingo duen Oihana Iguaran izango dugu. 2011n debutatu zuen Gipuzkoako txapelketan eta handik lau urtera, 2015ean, txapelketa horretako finalera heldu zen.

Izen distiratsuek osatzen dute bihar gauean egingo den bertso-afariaren kartela eta martxa onean doa sarreren salmenta. Sagar Bitza eta Kultur tabernetan salgai zeudenak agortu egin dira, baina Kantabria jatetxean oraindik badago erosteko aukera. Gainera, saldu ezean, bihar bertan Kantabrian erosi ahal izango dira oraindik.

Bertsotan hasi aurretik afaria egongo da, sabela ondo beteta animo eta poz handiagorekin abesten delako. Afariko menua azken urteetako berdina izango da: entsalada mistoa, fritoak, entrekota guarnizioarekin eta tarta. Afari betea eta bertso-saio bikaina izango duzue, beraz, 33 euroren truke.

Gaske zein helduek arreta bereziarekin bizi dute bertsoaritzaz gaur egun. Baita Eibarren ere. Kantabriako bertso-afariak izan duen ibilbideak ondo erakusten du eibarrok eta ingurukook bertsoaritzarekiko dugun maitasuna, eta biharko saioan ondo gozatzeko aukera berria izango dugu.



Umerez betetako giro paregabea izaten da urteroko bertso-afarian.

Funeraria-Ehorztetxe Mugica

EIBAR **ELGOIBAR**

Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27

Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 | www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

GATE
English School

Urtzaile, 8 behea
20600 EIBAR
605 716 717

Lorea Hernández Arizaga
Ingeles Filologian Lizentziatua

YOKASTA Ibarkurutze, 7
Tel. 603 344 258

Manikura-aretoa

MANIKURA 5 €tik hasita

PEDIKURA 10 €tik hasita

zure azazkalak

zure espresibidea

Arrateko Ama, irailaren 8an

Harri artean sumatzen dira milaka urteko kondairen aztarnak. **Egun berezia izaten da Arrateko Amaren eguna eibartarrentzat.** Ohiturak ohitura, jaia eta algarak hartzen ditu Arrateak, Akondia, Karakate, Kalamua eta Urkoren babesean. Askotariko istorioek osatzen dute eguna: hilak 8 egun betetzean, udako azken egunetan nahasten diren kondaira pagano zein erlijiosoen arteko batasunak hartzen dute protagonismoa. XIV. mendearen arrastoak oraindik badituen baselizaren inguruko lurretan ospatzen da Arrate eguna. Txistulari (euren patroia kontsideratzen dena modu berean) zein bertsolarien melodiak lagunduta, Dantza Taldeak eskaintzen duen emanaldiak jaia suspertzen dute. Larrañaga eta Gisasolak 30. hamarkadan konposatutako Arrateko Ama-ri bizia ematen diote, leuntasunez jaso eta moldatu den melodia preziatuari.

Lehen begirada bota nuenetik inguruak xarma berezia zuela argi ikusi nuen. Tolosar gisa, Izaskungo ermitaren inguruan murgiltzen diren sentimenduen antzeko sentsazioa izan nuen Arrateko lurrak dastatu nituenean. Bateratasun berezia igartzen dut bertako bazter bakoitzean, etxean egongo bainintz bezala, arima eta espazioaren arteko banaketarik existituko ez baillitza. Tolosarron patroia izateaz gainera, Izaskungo amak ere irailan du bere ospakizuna. Biek garai bereko jatorria dutela esan daiteke, esentziaren parte izan ote zen, mendiz inguratuta, harri zein isastien arteko erlazioan oinarritzen da-eta jatorriz.

Izen bereko inguruak hartzen du eliza oinarri, urteetan zehar moldatua, handitua, suntsitua eta berreraikia izan dena, 1928az geroztik Eibarko bizilagunen patroia kontsideratzen dena, Arrateko Ama. XV. mendean bere existentzia frogatzen duten agiriak egon badaude, horrek atzera eramanez bere jatorria. Berezko Harriarteko birjinaren agerpena Arrateko lurretatik at izendatu zen; hiribilduaren ondoko soroetan ezarri ziren Arrateko Amaren elizarantzako lehen losak. Horiek ordea, herri-kondairak dioen modura, berezko tokira eramaten zituen gauero birjinak, Azitaindik alegia, Arrate inguruko lurretara hiru pausuetan. Izen berdinez ezagutzen dira egun birjinaren hiru geldialdiak, antzinako bidean mugari gisara jokatzeko dutenak gaur egun ere.

Kaleko anabatatik babestua, elizan ospatzen den eguneko meza nagusiak neurtzen du prozesioaren ibilbidea, kanpaien etengabeko hotsen errepikapenekin nahastuz, eta egun seinatu hori oinarri hartzen du Eibarko udalerririk. Garai batean, kanoien burrunba hotsen gertalekua izan zenaren ingurua mendez mende

herritarren pausuek moldatzen eta eraldatzen jardun dute. Historiareko arrastoek egurrezko gurutzearen azpian gordetzen dira, eta iturri itsuaren izenez ezagutzen denak harri leunduaren garaira garamatza, paisaia, gerrate zibilaren eszenatokian bertan kokatuz. Jentil, Moru zein Mariren lurrak izan zirenak historiaurreko gizakiaren bizilekua dugu, inguruan aztarna nabarmenik egon ez arren, gertuko soroetan azaldutako bertako harriaz egindako aizkorak, eta Kalamuan dauden Metalen Aroko tumuluek orain dela 7.000 urte inguruaren ustiakuntza bermatu batera garamatza.

Historian zeharreko talde ezberdinek moldatutako ingurua gaur egun ikusten diren parajeen erantzun dira. Esan bezala, gerrate zibilak gogor jo zuen inguru horretan. Altxatuen zein errepublikarren babesleku eta borroka luzeko eremua da, horma erorien babesean bizi zena. Elizan bertan azter daitezke borroka horien nondik norakoak, bertako harriak indarrez suntsituak izan zireneko aztarnak, eta ondorengo berreraikuntza lan sendoek babesten dute gaur Arrateko Ama. Inguru hau bera egun luzez Eibar suntsitzeko puntua izan

zen, eta paradoxa modura ere, kondaira mitiko guztietatik at, inguruaren xarma indartzen du. Lurraldearen ezaguerarako analisiak, espazioaren eraldaketan formak eta paisaiaren sorkuntza gizarte ezberdinen parada izan da, inguruan modu ezberdinean historia luzez ustiatua izanik. Egun, berez abenduaren 8an ospatu beharreko jaia irailako lehen egunetan ospatzen da. Eibarren esentziak izena hartzen duen lekua, izen horren baitan bizitzeko aukera eta beharra eskaintzen duena. Horrek egiten ditu eibartarrak lekutu, arnasmune bihurtu, bilgune gisa jokatuz.

Haatik, zapaltzen dugun belar bakoitza historia luzearen baitan instant batean elkartzen diren arrasto guztien oinarri dira. Gizakia mendi malda honetan egon aurretik, milaka animalia eta landarek okupatutako lurrak dira hauek. Inguruko baliabideez ustiatutako eremua dugu Arrateko lurra, elizan bertan kokatzen diren muralen pigmentuak, zaharrenak alegia, inguruko lur hautsez erabilia, XX. mendeko pinturaren azpian azalduak izan zirenak. Baina berezi egiten duena Arrateko lurren ingurua lurra bera da, harria, oinarria. IM-HE harri bolkanikoak inguratzen du Eibar. Horrek beraz, Arrateren harri artean kokatze horrek, berezitasun paregabekoa eskaintzen dio. Pagadi, harizti eta lizarrez inguratuta mendez mende, ondare material zein inmaterialen gordailu, ohituraz ohitura gorde dena eta hizpide dena, leku identitarioa.

izaskun egilegor uranga





- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Radio Eibar

C A D E N A

SER

104,0 FM



LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1
Tel. 943 20 33 29

KITTONBOLIA



Zirikatu zortea euskeraren alde!

Udako oporretatik buelta gogorra? Animo!!! Oraindik Arrate geratzen zaigu. Asteburu itzela pasatzeko aukera daukagu, berriro ere arnasa hartu eta ikasturte berriari aurre egiteko indarra hartzeko.

Erroskilak jatea, familiarekin edo lagunekin bazkaltzea edo prozesioa ikustea ohitura den bezala, tonbolako boletoak erostea ere ohitura bihurtu da eibartarrontzako Arrateko amaren egunean.

Hamazazpigarren urtez zabalduko du ...eta kitto! Euskara Elkarteak Kittonbolia Arraten, goizeko 10:00etatik aurrera. Lekua betikoa izango da, eliza parean egongo gara etortzen zareten guztioi boletoak saltzeko prest. Boletoaren prezioa azken 17 urtetako berbera, euro bat. Tonbolako apalak opariz beteta egongo dira: tamaina, kolore eta era askotako opariak bildu di-



tugu zeuen artean banatzeko. Eta hori **ezinezkoa izango litzateke urtero gurekin kolaboratzen duten denda, enpresa eta erakundeen laguntzarik gabe. Beraz, eskerrik asko gure proiektuak garatzeko babesa emateagatik!!!**

...eta kitto! Euskara Elkartearen tonbola 10:00etatik aurrera egongo da zabalik

Eta, jakina, ...eta kitto! Euskara Elkarteak bihotzez eskertzen dizue herritarrei txartela erostean emandako babesa. Urtero bezala Kittonbolian batzen den dirua Eibarren euskararen alde lan egiteko erabiliko dugu. Ondo pasa jaiak!!!

Arrate egunean opariz beteta izango dugu Kittonbolia. Euro baten truke opariarekin etxera bueltatzeko aukera handia izango da. Eskerrik asko parte hartu duzuen denda eta enpresa guztioi!!!



ANTOLATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

LAGUNTZAILEAK:

- ...eta kitto!
- Akara
- Ansa bitxitegia
- Aratatto
- Arregi-Dominguez arraindegia
- Artola jatetxea
- Askasibar
- Aspe
- Astelena taberna
- Atelier
- Athletic Club Fundazioa
- Avia Amaña gasolindegia
- Avia Azitain gasolindegia
- Azitain erretegia
- Azpiri jostundegia
- Azpiri saneamenduak
- Baglietto
- Baisi
- Birjiñape berria
- Benicoba
- Burbujas y Mas
- Capi
- Closet
- Dandara
- Dirdai
- Ditare
- Eguren
- Eibar Eskubaloia

- Eibar Kirol Elkartea / SD Eibar



- Eibar Rugby Taldea
- Eibar Sasoian
- Eibarbus
- Eibarko Txirrindulari Elkartea
- Eibarko Udala (Kultura)



- El Canton de la Avenida



- El Corte Ingles




- El Jardin de Tulipa
- El Vestidor
- Emankor



- Eroski Eibar Hipermerkatua
- Eskarne
- Esther Galarza
- Farmalur
- Forchetta
- Garbibox
- Genoveva arraindegia
- Gerritek
- Gratzina
- Guby mutilak
- Gustatzen Jata
- Helmet House
- Homme
- Hotel Unzaga Plaza
- Idoia Bergaretxe Spa
- Ibarkurutze frutadenda
- Ikusimakusi

ESKERRIK ASKO laguntzaile eta parte-hartzaile guztiei!!!

- Industrias G. Arizaga
- Industrias Mail
- Iñaki Harategia
- Ipur Sagardotegia
- Irei Estetika
- Irritsa




- Ixua Hotela
- Itxesi
- Izadi
- Izane
- Jauregi
- Jaz Zubiaurre
- Jeronimo



- Jorge Vega
- K2
- Kantabria Jatetxea
- Kanto Gasolindegia
- Kenay estetika
- Kenko (Eneko Mallagarai)
- Kenko (Laura Alluriz)
- Kerala
- Khol ileapaindegia
- Kokein
- Kontent
- Kopina
- Kresala arraindegia

- Kultu taberna
- Klaus
- Laboral Kutxa
- Lakett
- Leder
- Lolas
- Lugaritz Autoak
- Luis del Rey
- Marais
- Marsi
- Mas Que Wapos
- Meka-Hotel
- Mertxe gazta eta txerrikiak
- Mugika harategia
- Muma
- Neure
- No Comment
- No+Vello



- Pio Pio
- Oberena harategia
- Oihal
- Oroz Exclusivas S.L.
- Otegi harategia

- Pirritx eta Porrotx



- Publi-Resa
- Residence Coffe Bar
- Salaberria
- San Andres gozotegia
- Sosola baserria
- Su Beroa
- Su ta Gar
- Tacto
- Tribeka
- Twins
- Txutxufletas
- Umea
- Urdanibia
- Urkotronik



- Yraolagoitia
- Zorionak Kid's and Party
- Zubi Gain
- Zurkulu

Arrateko Amaren Jaixak 2019

Irailak 7, ARRATE BEZPERA

- 18:00.-** MEZA Arrateko Santutegian, eta ondoren, **SALBEA**. Jarraian, **TXUPINAZOA** eta kanpai errepika.
- 19:00.-** **HERRI-KIROLAK**.
- 21:00.-** **BERTSO-AFARIA**: Oihana Iguaran, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña. Gaijartzailea: Jon Mikel Mujika. Kantabria jatetxean. Sarrerak: 33 €. (Sagarbitza - Kultu - Kantabria jatetxea). Antolatzailea: "... eta kitto!".
- 22:30.-** **ROCK-KONTZERTUA**, txosnen eskutik.



TXOSNETAKO EGITARAUA

IRAILAK 7, zapatua

- 13:00.-** **KARROPOTEOA** Arratetik
- 13:30.-** Neska * gazteon **TOPA**.
- 15:15.-** **HERRI-BAZKARIA**.
- 17:00.-** Nani **KANTAUTOREA**.
- 18:30.-** **JOLASAK**.
- 20:00.-** **TRIKIPOTEOA**.
- 23:00.-** **KONTZERTUAK**: Lisabö, Amparanoia, DJ Okerreko, Masta Quba + Mariev.

IRAILAK 8, domeka

- 12:00.-** Presoen aldeko **KONTZENTRAZIOA**.
- 18:00.-** Egin dezagun topa **FLASHMOB-A**.

Irailak 8, ARRATE EGUNA

- 10:00.-** Azitaingo surtidoretik irten eta **ARRATERA IGOERA**, Ama Birjinaren pausoen bide zaharretik. Salda, txorizoa eta ardoa banatuko dituzte Zesteroko iturrian, Jai Batzordeak antolatutik.
- 10:00.-** **KITTONBOLA**.
- 10:30.-** **KALEJIRA** Eibarko Usartza Txistulari taldearen eskutik.
- 11:00.-** **MEZA** Nagusia Arrateko Santutegian. Kezka Dantza taldeak eta Usartza Udala Txistulari taldeak Arrateko Amaren **EZPATA-DANTZA** egingo dute. Ondoren Arrateko Amaren **PROZESIOA** Usartza Txistulari taldeak, Jainaga eta Narbaiza trikitilariak, Kezka Dantza Taldeak, bertsolariek eta agintariek lagundurik. Arrateko Amaren ezpata-dantza.
- 12:30.-** Kezka Dantza Taldeak eta Usartza Udala Txistulari Taldeak **ARRATEKO AMAREN DANTZAK** aurkeztuko dituzte zelaian.
- 13:30.-** Jainaga eta Narbaiza **TRIKITILARIAK** eta Mikel Mendizabal eta German Meabebasterretxea **BERTSOLARIEN SAIOA**.
- 17:00.-** **BERTSOLARIEN SAIOA**.
- 17:00.-** Arrateko Amaren **HIRU TXIRLO** Saria. Antolatzailea: Asola Berri Elkarteak.
- 17:30/20:30.-** **BETE ZAITEZ...BAINA EMOZIOZI!** Alkoholaren inguruko kanpaina informatzaile eta hezitzailea. Sasoia elkarteak (Osasun heziketa eta drogomenpekotasunen prebentzioa) **ALKOHOLEMIA KONTROLAK** egingo ditu. Antolatzaileak: Eibarko Udala eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Mendekotasunen Zuzendaritza.
- 17:30.-** **DANTZA SOLTE TXAPELKETA**. 10 bikote onartuko dira, aldezturik gonbidatuak (bost 15 urtetik gorakoak eta beste bost beharokoak).
- 18:30/21:00.-** **DANTZALDIA** Mugi Panderoa taldearekin.

Arrate egunaren inguruko mezak

- ZAPATUAN (ARRATE BEZPERAN):

18:00.- Bederatziurrenaren amaiera Arraten.

19:00.- Salbea San Andres parrokian, koroak lagunduta.

- DOMEKAN (ARRATE EGUNEAN):

09:30ean, 11:00etan (meza nagusia eta prozesioa),

13:00etan eta 18:00etan.

Hiru txirlo tiraldia

Domekan, 17:00etan hasita, Arrateko Amaren Sari Nagusia.-

Tiraldia: 10 euro. Sariak: irabazleak, txapela, 100 euro eta urdaiazpikoa; bigarrenak, 70 euro; hirugarrenak, 50 euro; laugarrenak, 30 euro; eta bosgarrenak, ustekabea. Euria egiten badu, txapelketa hurrengo domekan, hilaren 15ean, jokatu da Asola Berri bolatokian, orduan ere 17:00etan hasita.

Autobus zerbitzua

- ARRATE BEZPERAN -irailak 7- (DOAN):

IGOTZEKO (12:00, 13:00, 14:00, 17:00, 17:30, 18:00, 18:30, 19:00, 19:30, 20:00, 20:30, 21:00 eta 21:30), Ego-Gainetik irtenda.

JAISTEKO (12:30, 13:30, 14:30, 17:30, 18:00, 18:30, 19:00, 19:30, 20:00, 20:30, 21:00 eta 21:30).

GAUEZ IGOTZEKO (01:30etik aurrera, autobus bat orduero 07:30ak arte).

JAISTEKO (01:00etik aurrera, autobus bat orduero 08:00ak arte),.


- ARRATE EGUNEAN -irailak 8- (DOAN):

IGOTZEKO (08:30etik aurrera, bete ahala, 21:00ak arte), Toribio Etxebarriatik. Egun osoan gora eta behera ibiliko dira.

JAISTEKO (azkena 21:30ean).

OHARRA: Arraterako autobus guztiak doan izango dira.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



Ego Gain
Gerontologia
Zentroko
taberna

PINTXOAK
JANARIAK ENKARGUZ
EGUNEKO MENUA
PLATER KONBINATUAK

...

10:00etatik 20:00etara

"TIRO PITXOI JATETXEA" ARRATE

TERRAZA EDERRA BISTA PAREGABEEKIN 943 20 88 59



MENUA ETA KARTA AUKERAN
Astelehenetan itxita

Arrateko zelaia azken hamarkadetako euskal talde arrakastatsuenetako baten kontzertua jasoko du bihar gauean. Zarata maisuki menderatzen duen taldea izango dugu gurean, Lisabö. Irundarrek ez dute fokuen beharrik euren handitasuna erakusteko, egiten duten horretan onenetakoak direla baieztatzeko nahikoa dute gitarra, baxua edo bateria eurek dakiten moduan astintzea.

- Zazpi urte egon zarete diskorik publikatu gabe, baina disko berriak izan duen harrera ona ikusita ematen du ez dela denborarik pasa. Nola bizi izan duzue zuek denbora tarte hau?

Ez dugu jarduna utzi izan dugun sentsazioirik eduki, ez dugulako inoiz utzi. Beti egon gara hor, nahiz eta taldeari buruzko albisterik, kontzerturik edo diskorik ez egon. Lisabö beti egon da bizirik. Naturaltasunez eta normaltasunez bizi izan dugu zazpi urteko isilunea.

- Jarraitzaileen presioa sentitzen zenuen material berria ateratzeko?

Musika munduan (eta gaur egun askoz gehiago) zure inguruan berririk ez badago, geldirik zaudela dirudi. Ematen du lokalera entseatzera bazoaz, horren berri eman behar duzula. Guk ez dugu horrela funtzionatzen. Zazpi urtetan ez dugu ezer publikatu, baina ez gara geldirik egon.

- Arlo musikalarri begira, aldaketak nabaritzen dira azken diskotik berrira?

Aldaketak beti somatzen dira. Talde barruan ere aldaketak egon dira, kide batzuk atera eta berriak sartu direlako. Diskoa grabatzean ere formazioa bat izan da eta zuzenekoetan beste bat dago. Orduan, nahitahenez somatzen da. Gainera, urteak pasa ahala bizitza aldatu egiten da eta kantuak egiterako orduan ere ikuspegia aldatzen joaten da. Lisabön ez dugu lan egiteko modu finkorik, baina kantuak egiten joaten garen heinean bozeto asko ditugu eta "hau ho-



ENEKO ARANZASTI, LISABÖ:

“Egun badirudi beti egon behar duzula erakusleihoaren lehen lerroan”

rrela joango da eta hau ez”, esaten digu zerbaitek. Hori mantendu egiten dela uste dut.

- Martxel Mariskal da Lisabören letren sortzailea. Bere letrei musika jartzien diezue edo zuen doinuei jartzien die letra?

Esan bezala, ez dugu lan egiteko modu finko bat. Disko berriari Martxeli bozeto batzuk pasatu genizkion, berak entzun eta zerbait idazten zuen, edo idatzitako zerbait moldatzen hasten zen... nahiko prozesu librea izan da. Beste diskoetan hainbeste eman ez den hartu-eman izan dugu.

- Nola moldatzen zarete bi bateria-jole talde berean aritzeko?

Lisabön sartu nintzenean Iban eta Aida ziren bateria-joleak eta Iban gitarra-jole izatera pasa zenez, ni Aidarekin hasi nintzen. Askok ikasi nuen berarekin. Bateria bakarrik jo baduzu beti, hasieran zaila egiten da beste batekin jotzea. Zer bilatzen den ulertu behar da. Gure kasuan gutxiago egin behar dugu emaitza handiagoa izateko.

- Aida Torres eta Maite Arroitauregi eibartarren kolaborazioa izan duzue diskoan. Nolako ekarpena egin dute?

Maite beti egon da gure diskoetan (aurrekoan izan

ezik) eta bere ekarpena beti da primerakoa. Alde batetik, lagunekin lan egitea oso polita delako. Eta bestetik, txeloarekin kantuek beste puntu bat hartzen dutelako. Aidarekin, bestalde, urte batzuk atzera botatzea izan da niretzat. Opari bat izan da.

- Arrateko kontzertuan ikusi ahal izango ditugu?

Ez, zoritxarrez ez.

- Nola bizi izaten dituzue zuzenekoak?

Lisabören kontzertuak nahiko biziak izaten dira. Teknikoki ez gara oso musikari trebeak eta ez dut esango zuzenekoetan desastre bat garenik, baina teknika bigarren maila batean uzten dugu. Normalean kantuen listak eta kantuen arteko loturak azken momentuan erabakitzen ditugu, eta horrek sortzen duen tentsioa berezia da. Batzuetan kontzertuan bertan aldatu izan dugu abestien zerrenda. Horrek tentsio puntu bat ematen du eta aberasgarria dela uste dut. Batetik, taldekideak ezin garelako lo geratu. Eta bestetik, publikoari kontzertua interesgarriagoa egiten zaiolako. Kontzertu batzuetan badirudi musikariak musika egiten ari direla, beste barik, eta hori ekiditea ondo etortzen zaigu. Alde txarra du, azken orduko erabakiekin agian zerbait gaizki atera ahal delako, baina joakoaren parte da.



Maite Arroitauregi eta Aida Torres

Musika Arrateko gaua berotzeko

Udako gauak ez dira oso beroak izaten Arraten. Altuera kontua da. Arrateko zelaian egun osoa eguzkipean pasa ondoren gauari ongietorria eman dion edonork badaki jertsea jantzi beharko duela. Eibartarron idatzi bariko lege bat da. Arrateko jaietako bezperan, ordea, ez da jakarik beharko gorputza berotzeko. Nahikoa izango da Jaixak Herrixak Herrixandako jai batzordeak prestatu dituen kontzertuekin gozatzea, zelaia sutan jartzeko moduko musikariak etorriko dira-eta.

Bihar eguerdian Arrateko zelaia betetzen hasiko da. Asteburu betea dago aurretik eta Jaixak Herrixak Herrixandako plataformak ondo aprobetxatu nahi du hasieratik. Karropoteoa, neska* gazteen topa eta herri-bazkaria egin ondoren iritsiko da lehen saio musikala. 17:00etan Nani kantautoreak emanaldia eskainiko du, hurrengo orduetan etorriko den musika ezteandaren abiapuntu.

Amparanoia, Lisabö, Masta Quba eta Marie V, eta DJ Okerreko izango dira gaueko izarrak. 22:00etan hasiko dira kontzertuak eta musikak goizeko lehen argi izpiekin egingo du bat, txorien kantei lekukoa emanez.

Rocka, reggaea eta beste hainbat estilo maisuki uztartzen dituen taldea da Amparanoia. Aitzindaria baino, iraultzaile musikala izan da Amparo Sanchez abeslariaren inguruan eraturako taldea. Hamarkada bi baino gehiago daramatza taula gainean eta Ozeano Atlantikotik harago ezagunak diren abestiak sortu ditu. 1997an 'El poder de Machin' izeneko diskoa kaleratu zuen, Granadatik zekarren blues doinuak utzi eta hainbat estilo uztartzuz Ma-



Amparanoia

nu Chao eta Victor Coyote bezalako musikariaren laguntzarekin, eta diskoaren 20. urteurrenaren aitzakiarekin kontzertu-bira eskaini zuen. Ordutik gelditu barik dabil hara eta hona. Bihar Arratera ailegatuko da eta bere izaera alaiak Arrateko zelaian bilduko direnak kutsatuko ditu.

Lisabö bueltan da. Zazpi urte disko bat editatu barik eta bost urte kontzerturik eskaini gabe egon ostean, 'Eta edertasunaren lorratzen biluztu ginen' diskoa argitaratu zuten iaz. Gainera, kutsu eibartarra duen diskoa dela esan daiteke, bertan parte hartu zutelako Eibarren hazi zen Aida Torresek (Lisabö taldeko bateria-jole ohia eta disko honetan kolaboratu duena) eta Maite Arroita-jaregi Mursegok. Irungo seikoteak gorenera eraman zuen estiloa mantentzen du eta zuzeneko zaratatsua ekarriko du Arratera.

Mexikotik datoz Masta Quba eta Marie V rap borrokari eta feministarekin. 'Autodefensa' lanarekin Europan arrakasta lortu ondoren euren musika zuzenean lehen aldiz entzuteko aukera izango da Arraten. Emakumezkoek ikusgarritasun gutxi eduki izan ohi duten hip hoparen munduan euren ahotsa eta presentzia aldarririkatu dute, eta baita euren istorioak ere. Emakumezkoen ahotsa isildua eta eragotzia izan da (baita musikaren munduan ere), eta mexikarren proiektuak haustura hegemonikoen prozesua jarri du martxan. Barrenetik ateratako musikarekin erritmo beroak eskainiko dituzte Masta Quba eta Marie V-k.

Hiru talde hauek eskaintzen dutena nahikoa ez balitz, DJ Okerrek gaua modurik onenean amaitzen lagunduko die Arrateko zelaian bildutakoei.

Arrate Egunean gaueko suaren errautsetatik piztuko dira festarako gogoak eta, egun osoko egitarauaz gozatu ondoren, Mugi Panderoa taldeak erromeria eskainiko du ikasturteari hasiera ematen dien jaiak agur esateko.



Masta Quba



IGNACIO JAVIER LARRAÑAGA "KILI"

1. urteurrena: 2018-VIII-23

"Zure umore eta alaitasuna beti gure bihotzean. Une oro gogoratzen zaitugu, maitasunez"

ZURE FAMILIA



**Dmitrovic** atezaina**Yoel** atezaina**Bigas** atzelaria**Ramis** atzelaria**P. Oliveira** atzelaria**Cote** atzelaria**E. Burgos** atzelaria**Correa** atzelaria**Arbilla** atzelaria**Tejero** atzelaria**Escalante** erdilaria**Sergio** erdilaria**Diop** erdilaria**Exposito** erdilaria**Orellana** erdilaria**De Blas** erdilaria**Pedro Leon** erdilaria**Inui** erdilaria**Quique Glez.** aurrelaria**Enrich** aurrelaria**Kike Garcia** aurrelaria**Charles** aurrelaria

Eibar Foball Taldeak Euskal Herri Txapela irabazi zuen Tolosan

Erritmoak eman zion txapela torneo horretako hirugarren edizioan, aurrez Realak sartutako golari Paulo Oliveirak eta De Blasisek lortutakoekin erantzunez. Partidua abuztuaren 10ean jokatu zen Tolosako Berazubini eta, aurrendenboraldian hainbat partidutan Mendilibarren jokalariek erakutsitakoari jarraituz, eibartarrek gaina hartu zioten Realari eta meritako garaipena eskuratu zuten. Partidu hori izan zen aurrendenboraldian jokaturako hamargarrena eta azkena. Aurretik zaldibartarrak zuzentzen duen taldeak 0-2 irabazi zion Leioari eta 1-3 Amorebietari. Behin Alemaniara joanda, han bina berdindu zuten Leverkusenekin, 5-2 irabazi zion Kayserisporri, jarraian 2-0 garaitu zuten Besiktas, Werder Bremenekin 4-0 galduta porrot handiena jasotzeko ondoren. Gero Dusseldorfeko Fortunarekin jokatu zituen bi partidua jarraian: aurrenekoa 3-2 galdu zuten eibartarrek eta bigarrena 1-2 irabazi. Realarekin jokatu bezperan, husna berdindu zuten Osasunarekin. Guztira partidu horietan 20 gol sartu zituzten eta 14 jaso. Kike Garcia eta lagata joan den Asier Benito izan ziren goleatzaile nagusiak, lau golekin; hiruna lortu zituzten De Blasisek eta Pedro Leonek, eta bi sartu zituzten Charlesek. Behin Liga hasita, taldeak ez du bere maila onena erakutsi oraindik eta kanpoan jokaturako hiru partidutan puntu bakarra eskuratu du, Sadarren Osasunarekin husna berdinduta. Mallorcarekin 2-1 galdu zuten Eibarrek eta aurreko domekan 3-2 Atletico Madrilekin, 0-2 aurretik ipini ondoren. Denboraldiko lehenengo partidua Ipuruan irailaren 15ean izango da Espanyolen aurka, eguerdiko 12:00etan hasiko den neurketan. Ipuruako lanak martxa onean doaz eta ordurako dena prest izango dutela sinestuta daude klubeko zuzendaritzan.



Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carnicería
autorizada

Bidebarrieta 20
Tlfno: **943 20 16 69**



Bigarren Maila berrian debutatuko du Eibar FT-k

Azken denboraldian eskuratutako igogerarekin, Eibar FT-k beste maila bateko ligan egingo du debuta, 2. Mailako Iparraldeko multzoan, "goi mailara begira, baina jakinda talde handiekin lehiatu behar dugula". Horretarako, taldea asko berritu da, Iker Dorronsoro "Triki" entrenatzailetik hasita. Bederatzi jokalaria etorri dira: Oihana Aldai (Reala) eta Malena Mieres (Deportivo) atezainak; Nerea Abancens (Oiartzun) Ruth Alvarez (Collerense) eta Esti Aizpurua (Realean, Athletic-en eta Oiartzunen aurrez jokaturakoa) atzelariak; Tomo Matsukawa (Albacete) eta Mar Torras eta Carla Morera (Seagull) erdilariak; eta Ane Campos (Reala B) aurrelaria. Aurrendenboraldian denetariko emaitzak izan ditu arlo teknikoan ere asko berritu den taldeak. Horrela, Madrigo Taconekin 1-0 galdu ondoren, 1-3 eta 2-3 irabazi zien George Fox Athletics eta Santanderreko Racing taldeari, hurrenez hurren. Jarraian 1-0 galdu zuen Athletic B-rekin, 0-2 irabazi zion San Ignacioren eta, amaitzeko, emaitza argiekin galdu ditu azken bi neurketak: 4-1 Deportiborekin eta 5-1 Athletic-eko lehen taldearekin. Domekan Liga lehiaketa hasiko dute Osasunaren kontra, Unben eguerdiko 12:30ean hasiko den partiduan.

Vitoria filiala Unben

Azken denboraldia 2. B mailatik 3.era jaitsi den Vitoria talde filialak Unben jokatu ditu aurtengo partiduak; abonatuak sarrera doan izango dute jardunaldi horietarako. Ez dira ondo hasi maila berrian eta, bi jardunaldi jokatu, oraindik ez dute golik sartu: husna berdindu zuten Gernika jaitsi berriaren zelaian eta aurreko asteburuan 0-1 galdu zuten Pasaiarekin Unben. Asteburu honetan Zubieta bisitatuko dute, Reala C-ri aurre egiteko.

Romo eta Fran Rico

Fran Garagarza zuzendari teknikoak denboraldi berriko idazkaritza tekniko berria aurkeztu zuen martitzenean. Pisu berezia izango dute hor Granadatik bueltatu den Fran Ricok eta Irungo Real Unionetik uztailean Eibarrera etorri zen Eneko Romok.



Egaña atezaina



Mieres atezaina



Aldai atezaina



Seoane atzelaria



Aizpurua atzelaria



Aiestaran atzelaria



L. de Gereñu atzelaria



Abancens atzelaria



Gantxegi atzelaria



Alvarez atzelaria



Gezala atzelaria



Iparragirre atzelaria



Aitonaga erdilaria



Yunei erdilaria



Oñañeta erdilaria



Torras erdilaria



Elorza erdilaria



Marquez erdilaria



Matsukawa erdilaria



Agoues erdilaria



Campos aurrelaria



Morera aurrelaria



Ibarrola aurrelaria



Larrinaga aurrelaria



ZURICH

Lejardi S.L. Aseguru Agentzia

Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar

Eibartarontzat kirol bide berriak direnak zeharkatzen hasi dira Ziaran ahizpak. Badira urte batzuk Igor Isasik ere arrauna probatu zuela (Zarautzen eta Zumaian jardun zuen) eta oraingoan Ane eta Nerea esperientzia *"ezin aberasgarriagoan"* murgildu dira. Nereak amaitu du berea Lekeitioko Isuntzarekin; Ane, bestalde, denboraldiko une garrantzitsuenean dago, datozen bi asteburuetan erronka nagusienei egin beharko die aurre-eta. Domekan Kontxan izango da Zumaiaarekin, *"gure txanda irabazteko asmoz"*. Hilaren 14an Bermeon eta 15ean Portugaleten, bestalde, mailaz igotzeko estropadei egin beharko die aurre, Hondarribia eta Hibaikarekin lehian, postu bakarraren bila: *"Igotzeko aukerak hor daude eta horren bila goaz, zalantza barik"*.

Ziaran ahizpak, arraunean ere gozatzen

Ane Ziaranek 13 urte egin ditu triatlota eta Nereak txikitatik jardun du igeriketan. Urriaren amaieran hasi zuten denboraldia Zumaiaarekin, *"astean lau-bost entrenamendu saioekin"*, eta dagoeneko nekea ere nabaritzen zaie: *"Batez ere, buruko nekea, udak luze jo du-eta. Talde gehienak margen txikian*

mugitzen garenez -batzuetan sei traineru zortzi segundotan-, ziabogak zelan hartzen dituzun, izan daitezkeen lesioak... garrantzi handia hartzen dute", diote. Hasieran ergometroan egiten zituzten sei minutuak urruti ikusten dituzte, *"orain ordubetetik gora egiten dugulako, serietan banatuta"*. Lehen egunetan *"indarra lortzeko"* gimnasioak eta antxixika egiteak zuten garrantzia urak hartu zuen gutxinaka: *"Hasieran asteburuan behin joaten ginen uretara; udan, bestalde,*



asteko sei egunak uretan eman ditugu. Gimnasioan egun bakarrarekin nahikoa".

Zumaian jende nahiko zutela-eta, Gabonak ondoren Nerea Ziaran Lekeitiora pasatu zen: *"Talde batetik besterako mugimenduak ohikoak dira arraun munduan"*. Hori bai, batek zein besteak opor gutxi izan dute hasi zirenetik: *"Gabonetan bi-hiru egun, Aste Santuan beste hiru... eta gu eskerrak ematen gainera. Castron proba baten amaieran han geratu eta oportetan geundela zirudien"*, dio Nereak. Arraunean teknika ikasteak duen garrantzia azpimarratzen dute

biak: *"Hori izan da zailena guretzat, erresistentziara aurretik ere ohituta gaudelako. Kanpotik erraza dirudi, baina lesioak izateko arriskua badago, batez ere postura kontuengatik"*. Biak izan dute lesio bera, *"interkostaletan, bizkarra zuzen ez botatzearen"*. Jardun erre-pikakorra da arraunlariena: *"Batera egin beharra dago gainera, arraunak paraleloan"*. Traineruak, bestalde, mutilentzat daude eginda eta neskei egokitzea tokatzen zaie: *"Gure tostetan takoak ipini dituzte gu altxatzeko, materiala ere euren eskuetatik pasatutakoa da askotan. Distantzia kontua*



Lekeitioko Isuntza zazpigarren izan da ETE Ligan.





ere hor dago: gure probak moztzagoak badira ere, horrek gorputza mugan ipintzera beharrezko zaitu”.

Entrenamenduen iraupenaren gaitasuna, elkarren arteko begiradek hor beste zeozer ere badagoela adierazten dute “Ariketekin udan ordubete; aurretik bi egunero. Baina entrenamenduekin ez da amaitzen lana: trainerua atera behar duzu, gero garbitu... Azkenean, lau ordu ere bai”. Disziplina asko eskatzen duen kirol-modalitatea baita arrauna: “Traineruak 200 kilotik gora pisatu behar du eta denon artean eraman eta garbitzen dugu”. Telebistarako, traineru batek

kamara eramaten badu, “beste guztiek pisu bereko lastrea kargatuko dute”, zehazten digute.

Talde-lana batez ere

Anek 5etik (contraespalda) egin du arraun Zumaiarekin eta Nereak 6tik (espalda) Isuntzarekin, biek ere baboretik. Hamahiru arraunlarik eta patrioiak osatzen duten boteetan “pisua, altura eta esperientzia hartzen dira kontuan, beti ere beharraren arabera. Postuak ere aldatu daitezke, konpentsatzeko ahaleginean. Hanka da taldeko esperientziaduna, eritmoa eta arraunkera markatzen dituen”, diote abdo-



Zumaiak bigarren postuan amaitu du ETE Ligan.



duela esan digu. Hori bai, batak zein besteak arrauna egitera animatzen dute: “Askori entzun diegu ‘gingo nuke’ esaten, baina gero ez dute urratsik ematen. Arraun mundukoak esku zabalik hartzeak dira, edozein tokitan”, esaten digute itsaso txarrean hobeto moldatzen diren Ziarran ahizpek.

minaletako lana gogotik egin behar izan duten ahizpek.

Orain arte egindako kirolekin alderatuta, desberdintasun handiena “talde-lanean” ikusten du Anek. “Triatloian bakarrik diharduzu, hemen taldeak irabazten du. Entrenatzeko orduan ere, denak elkarrekin jarduteak laguntzen du”. Taldegiro hori azpimarratzen dute biek arraunaren onena moduan; duen txarrena, bestalde, “lotura hori, abuztuan batez ere”. Hala ere, datorren denboraldian arraunean jarraitzeko asmoa du Nereak, “bigarren urtea politagoa dela esan didate-eta”. Anek denboraldia amaitzerakoan erabakiko

Kontxa modukorik ez dagoela, horretan ere biak bat datoz: “Sailkatze eguna bera berezia izan zen”. Ezin pozarren bizi izan zuten Portugaleteko banderako eguna ere, Zumaiak eskuratutako seikotik lehenengoa eta Lekeitiokoen sailkapen onena: “Isuntzakoak jautzika ikustean pentsatu genuen eurak irabazi zutela”, dio Anek. “Eta gu pozik hirugarren geratu ginelako”, Nereak. Azkenean Zumaiak lortu zuen bandera, eta horiei beste lau gehitu zien ETE Ligan eta beste bat Urumean jokaturako lagunartekoan.



Mutrikuko arraunlariak animatu zituen Ziarran ahizpak arraunean egitera.

RAMON HERNALTES TREVIÑO

(2. urteurrena: 2017 / VIII / 5)

**“Bi urte pasatu badira ere,
gure bihotzetan jarraitzen duzu”**

ZURE FAMILIA



Eibar Eskubaloiak indartsu abiatu du denboraldia

Bihar 18:30ean Egia hartuko du Eibar Eskubaloiko lehen taldeak Ipuruan Euskadiko Koparen hirugarren jardunaldian. Jokaleku berean izandako lehen jardunaldian Ereintzarekin 27na berdindu eta gero, iaz lider amaitu zuen Tolosari 17-18 irabazi zioten Fernando Fernandez mutilek Usabalen, "egindako defentsa bikainari esker". Une honetan eibartarrak multzoko liderrak dira Kopako lehen fase honetan eta, donostiarren kontra jokatutako ondoren, Elgoibar izango dute aurkari azken partiduan.

Bestalde, Somos Eibarrek hemendik hamabost egunera hasiko du 1. Nazional mailako liga, Ipuruan Avefor Huescaren bisita jasoko duen jardunaldian. Denboraldi berrirako hiru alta izango ditu taldeak: iaz ikasketengatik jokatu ezin izan zuen Iker Izagirre, Haritza bigarren taldetik igoko den Jonay Borrego eta oraindik jubenil mailakoa den Andoni Yarza. Bajak, bestalde, ez dira nolana hikoak: taldean hainbat urte egin dituzten ezker hegalekoak biak, Eneko Garetxana eta Unai Rodriguez.



Ipurua beteta Superkopan

Aurreko zapatuan eskubaloi zaletuek bikain erantzun zuten eta Ipuruako eserlekuak jendez beteta egon ziren Espainiako Superkoparen finala ikusteko. Ro'Casa eta Bera Beraren arteko partidua, gainera, ezin pa-

rekatuago amaitu zen, berdinketarekin, eta luzapenean amore eman behar izan zuten donostiarrek, azkenean 32-31 galtzeko. Eibar Eskubaloia klubak antolatutako jardunaldia Coliseoan egindako galarekin amaitu zen.



Sonia Dominguez eta Andoni Mayo Frantziako TDM kanikrosean

Abuztuaren 3tik 12ra Trophee des Montagnes lasterketan izan ziren Amarrak Txakurkross talde bizkaitarrekin parte hartzen duten eibartarrek. Guztira hamar etapa egin zituzten bederatzita egunetan, 60 kilometrotik gora eta 3.000 metroko desnibela gaindituz. "Mundu guztitik etorritako 400 parte-hartzaile" izan zituen lasterketak, "Europako herrialde guztietatik izan zirenekin batera, Brasil, Kolonbia, EEBB eta Kanadatik etorritakoak tartean". Frantzia, Suitza eta Italia arteko mendietan Andoni Mayok eta Sonia Dominguezek Dexter, Zeus eta Oreo txakurrekin hartu zuten parte. Mayok eta Dexterrek etapa guztiak egin zituzten eta sailkapen nagusian 30. postua eskuratu zuten, estatu mailako lehena izateko. Dominguezek eta Zeusek sei lasterketa egin zituzten eta maila handian jardun zuten. Kanikrosleriek urriaren 27an izango dute hurrengo hitzordua, Arrigorriagan jokatuko den proban.

Odei Jainaga azpitxapeldun Espainiako xabalina jaurtiketan

Ukondoko arazoak albo batera lagatzen diharduela baieztatu zuen Odei Jainagak aurreko asteburuan. Eibarko atletak zilarrezko domina eskuratu zuen La Nucian (Alacant) jokatutako Espainiako txapelketan, xabalina 75,52 metrora jaurtita, urrea lortu zuen Manu Quijera iruindarraren atzetik (77,39 metro). Horrela, uda hasieran erakutsitako hobekuntzarekin jarraitzen du. Klub Deportiboko xabalina jaurtizailea podiumera igo bazen ere, Jainaga ez zen erabat konforme geratu asteburuko lanarekin. "Ez nago guztiz pozik. Irabazteko asmoarekin etorri nintzen eta irabaztea ez den beste guztia galtzea da. Urrutiago jaurtitzeko indarra nuen, baina teknikak huts egin dit. Ukondoan gero eta min gutxiago dut eta datoren denboraldiari begira jarri naiz dagoeneko".




Jon Osa igerilariak zilarrezkoa lortu zuen Espainiako txapelketan

Eibar Igerixan taldeko igerilariak bigarren postua eskuratu zuen bizkar erako 100 metroko proban junior mailako Udako Espainiako txapelketarako 41. edizioan. Terrasako CN igerilekuan jokatutako lehiaketan Jon Osak bost probatan hartu zuen parte eta, hainbat finaletan sartzea lortzeaz gain, aurretik zituen markak hobetu zituen ia proba guztietan. Abuztuaren lehenengo asteburuan jokatutako txapelketa horretaz gain, astebete lehenago Bartzelonako Picornell igerilekuan jokatutako infantil mailako Espainiako txapelketan Eibar Igerixaneko Miren Galdosek lau probatan hartu zuen parte, guztietan markak egin ez. Eta abuztuaren erdialdean Tarragonako Fontana igerilekuan jokatutako infantil mailako Espainiakoetan, Iker Calvok bere lehen esperientzia izan zuen maila horretako lehiaketa batean.



Sariz betetako uda izan du Esteban Orozek

Esteban Oroz Eibarko Artista Elkarteko kideak hainbat sari eskuratu ditu uda honetan, herri ezberdinetan egin diren aire zabaleko pintura lehiaketetan. Ekainean, Elgoibarren egin zen VIII. Aire Libre Pintura Lehiaketan 2. saria jaso zuen, Pedro Miguel Urruzuno kalean, ambulatorio parean dagoen eraikin zaharreko fatxadari eskainitako koadroari esker; eta Ceniceron (Errioxa) antolatutako lehiaketan, berriz, lehen saria irabazi zuen. Horrez gain, uztailan lehen saria eman zioten Hondarribin, Emeki Elkarteak urtero antolatzen duen lehiaketan. Gipuzkoako hiri horretan jokatzen den lehiaketa kuttunetako da artista eibartarrarentzat, "margotzeko orduan ezin delako argazkirik erabili erreferentzia gisa, parean daukazunari baino ezin zaio begiratu". Handik egun gutxira berriz ere lehen saria eman zioten, Mutrikun, eta Camerosen (Errioxa) jokatutako lehiaketan, berriz, bigarren saria irabazi zuen. Uda honetan irabazi dituen lehiaketen zerrendan azkena Orozkon



abuztuko azken egunean jaso zuen hirugarren saria da. Eibarko artista honek bereziki maite ditu aire zabaleko pintura lehiaketak, "margotzeko orduan denbora muga izan arren, horrek koadroari beste freskotasan modukoa ematen diolako" eta, horrelakoetan zenbat sari irabazi dituen ikusita, argi dago erlojuaren kontra margotzen primeran moldatzen dela.

Kontzertua emango du Pancho Varonak datorren barixakuan

Pancho Varona Madrilgo musikoak Eibarren egingo du geldialdia, Espainiako 52 txoko bisitatzeko asmoz abiatutako 'Ruta 52' biraren barruan. Irailaren 13an emango du kontzertua, 22:00etan Coliseo antzokian eta sarreak 14 euro balio du (10 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Varonak martxan duen tourrak Madril, Bartzelona, Zaragoza, Valentzia, Guadalajara, Teruel, Caceres... eta Eibarrera ekarriko du. Dioenez, "asmo handirik gabeko" bere Espainiako itzuli berezia da eta Pancho Varonak bere ibilbide artistiko osoari errepaso egingo dio: 37 urte eman ditu Joaquín



Sabinaren aldamenean eta ehundik gora abesti konposatu ditu berarekin. Horrekin batera Serrat, Luz Casal, Pasion Vega, Ana Belen, Miguel Rios, Quique Gonzalez, Christina Rosenvinge, Ana Torroja, Hombres G... modukoekin jardun du beharrez. Orain, berriz, Varonak formatu txikiko kontzertuak egiteko ideia dihardu gauzatzen, taula gainera bakarrik bere gitarrarekin igota. Musikoaren berbetan, abestu ez ezik, "abestien inguruko anekdotak kontatzen ditut, zelan sortu edo zelan grabatu ziren... abestiak kantatu baino kontatu egiten ditut eta".

Prest daude udazkeneko ikastaroak UEUn

Udako Euskal Unibertsitateak prest dauka udazkeneko eskaintza eta, horren barruan, urria eta abendua bitartean lau ikastaro emango dituzte Eibarren, Markeskua jauregian: "Adimen emozionala eskolan", "Gau beltza. Balio aurrerakoiak lantzeko ospakizuna", "Gerontozina: adinekoen irudikapen soziala filmetako irudien bidez" eta "Online edukia kudeatzerakoan kontuan hartzeko gako juridikoak". Horrez gain, Iruñean ere hainbat ikastaro eskainiko dira. Eta online eskaintzaren barruan, berriz, honako hauek antolatu dituzte: "Adin txikikoak eta Internet: arriskuak eta nortasun digitala", "Egiten al dugu euskara ez sexista", "Geogebra ikasgelan", "Hizkuntza-teknologiak euskararen irakaskuntzan", "Kolorezko zenbakiak. Matematika lantzen erregeletan bidez", "Moodle-ko galde-sortak sakonki", "XXI. mendeko eskola: aro digitalari erantzuna bilatzen", "Zer ebaluatu hizkuntza batean? Nola ebaluatu?".

Zabaldute Juan San Martin Bekarako eskaerak aurkezteko epea



Udalak, UEUrekin lankidetzan, antolatutako XIV. Juan San Martin bekaren ikerketa gaia Historia izango da. Euskerazko ikerketa sustatzeaz gain, Juan San Martin eibartar ikerlaria omentzeko helburua duen beka 9.000 eurokoa da eta eskuratze-ko interesa dutenek urriaren 11ra arteko epea izango dute eskaerak zein eskatzen duten dokumentazioa aurkezteko, Pegoran edo internet bitartez, eibar.eus udalaren webgunean. Bete beharreko baldintzak eta gainerako informazioa ere Pegoran zein udalaren web orrian eskuratu daitezke. Euskerazko ikerketan interesa dutenentzat bekak eskaintzen duen aukera paregabea dela eta, komunitate zientifiko euskalduna osatzen duten irakasle, ikertzaile edota bestelako profesionaleri parte hartzeko deia egin nahi diete arduradunek.

Liburutegian egingo diren jardueretarako izen-ematea zabalik dago

Urtean zehar Juan San Martin liburutegian eskainiko dituzten jardueretan parte hartu nahi dutenentzat izena emateko epea zabalik dago. Aurreko ikasturteetan bezala, aurten ere Harixa Emoten helduentzako euskarazko irakurketa kluba antolatuko da. ...eta kitto! Euskara Elkartearekin elkarlanean egingo dira saioak, Portalean, hilean behin, 19:00etatik 20:00etara. Liburuaren mamia ateratzeko Antxon Narbaizaren laguntza izango dute eta saioetan idazleek parte hartuko dute. Irailaren 24an hasiko da jarduera, 19:00etan Portaleko 3. batzartokian, Miren Amurizaren "Basa" liburuaren inguruko literatur tertuliarekin. Gaur da saio hauetarako izena emateko azken eguna, liburutegian.

Horrez gain, helduentzako gaztelerazko irakurketa kluba ere ipiniko da martxan. Saioak urrian hasiko dira eta hilean behin izango dira, 19:00etatik 20:00etara Portalean. Dinamizatzailea Peru Magdalena izango da. Izen-ematea irailaren 13ra arte egin daiteke, liburutegian.

Eta umeentzako ere hainbat jarduera jarriko dituzte martxan. Haur Hezkuntzako 2 eta 3 urteko gelako umeentzat, gurasoek lagunduta, Azalerako Ipuinak umeen



irakurketa kluba egingo da. Saioak Umeen Liburutegian izango dira, hilero, 17:00etatik 17:45era eta talde bi osatuko dituzte. Dinamizatzailea Saroa Bikandi izango da eta izen-ematea liburutegian egin daiteke, irailaren 20ra arte. Liburuaren Poltsa umeen irakurketa klubean, berriz, Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urteko gelako umeek eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako

umeek har dezakete parte. Saioak hilero izango dira, Umeen Liburutegian eta dinamizatzailea Saroa Bikandi izango da. Lau talde egingo dira. Eta Paperezko He-goak ume eta gaztetxoek irakurle kluba LHko 3. mailatik DBH 1. mailara bitartekoentzat antolatuko da. Saioak Portalean egingo dira, hilero, eta dinamizatzailea Txomin Magdalena izango da. Taldeak, berriz, interesa erakusten dutenen adinen arabera osatuko dituzte.

Hizkuntzak praktikatzeko taldeak

Irakurzaletasuna sustatzeko jardueraz gain, ikasturte honetan ere atzerriko hizkuntzak praktikatzeko aldizkako bilerak antolatuko dituzte liburutegian: ingelesa praktikatu nahi dutenek urriaren 2tik ekainaren 17ra izango dute horretarako aukera, astero, eguaztenetan, 19:30etik 21:00etara; eta frantsesa praktikatzeko taldea irailaren 30etik ekainaren 15era bitartean bilduko da, astero, astelehenetan, 19:00etatik 20:30era. Batean zein bestean parte hartzeko irailaren 13ra arte eman daiteke izena, liburutegian (astelehenetik bariakura, 09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era).

V. Benito Ansola Sarirako ikus-entzunezko lanak aurkezteko epea luzatu da

Euskaltzaleen Topaguneak, Lekeitioko Udalak eta Euskal Zine Bilerak euskal kultura zabaltzeko eta gazteei euskarazko ikus-entzunezkoak ekoizten laguntzeko antolatu dute bosgarren Benito Ansola Saria, EHUko Mikel Laboa katedraren babesarekin eta Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritzaren laguntzarekin. 18 eta 36 urte arteko ekoizle gazteen lanak sustatzeko helburua du sariak. Irabazleak, 3.000 euroko saria jasotzeaz gain, bere lanaren gaineko ikusmira sortuko du, Euskal Zine Bileran estreinatuko baita gauzatzen duen proiektua. Bosgarren edizio honetan parte hartu nahi duten gazteek, proiektuak (fikzioa, sortzailea, animazioa edota dokumentala) irailaren 20a baino lehen aurkeztu beharko dituzte. Sariaren inguruko informazio gutzia kameratoia.eus helbidean dago eskuragarri.



tuak (fikzioa, sortzailea, animazioa edota dokumentala) irailaren 20a baino lehen aurkeztu beharko dituzte. Sariaren inguruko informazio gutzia kameratoia.eus helbidean dago eskuragarri.

JULIO EGIGUREN LARRAÑAGA (2016-VIII-5)

**HIRU URTE PASATU BADIRA ERE,
GURE BIHOTZETAN JARRAITZEN DUZU.
ETXEHOAK**





Hilaren 27ra arte jasoko dituzte Indalezio Ojanguren Argazki Lehiaketarako lanak

Udalak, Klub Deportiboaren laguntzarekin, Indalezio Ojanguren XX-XII. Argazki Lehiaketarako deia egin du. Argaziola Lehiaketaren sailkapenerako baliagarria den lehiaketan nahi duen guztiak dauka parte hartzeko aukera, norberaren aukerako gaia duten argazkiekin. Egile bakoitzak gehienez hiru argazki aurkeztu ditzake zuri-beltzean eta beste hiru koloretan, inoiz saritu gabekoak. Lanak 40x50 zentimetroko kartulinarekin edo kartoiarekin indartuak aurkeztu beharko dira, eta argazkiek gehienez ere 30x40 zentimetroko neurriak izan beharko dituzte. Lan bakoitzaren atzealdean lanaren izena azaldu beharko da. Argazkiak entregatzeko epea irailaren 27ra arte egongo da zabalik eta lehiaketari buruzko informazioa eskatzeko Udaleko Kultura arlorra jo daiteke (Portaleko 1. pisuan) edo, bestela, www.eibar.eus helbidean begiratu.

Ate irekiak antolatu ditu Nerea Lodosa dantza konpainiak gaurko

Gaur arratsalderako ate irekien jardunaldia antolatu du Nerea Lodosa dantzari eta koreografo eibartarrak, 18:30etatik aurrera Ipuruia Kiroldegian, bere talde berria ezagutzera emateko asmoz. Izan ere, ikasturte honetan bi irakasle berri izango ditu Nereak aldamenean, berekin batera klaseak ematen: Lide Agirre eta Thiago T-Black, biak ere ibilbide luzeko dantzari profesionalak. Lehenak dantza lirikoak irakatsiko du eta bigarrenak, berriz, dantza urbanoak. Gaurko antolatu duten ekitaldian 12 urtetik gorakoek har dezakete parte eta aurretik izena eman behar da, 615 787 657 telefonora deituta edo zuzenean Ipuruia edo Orbea kiroldegietan.



Zuloagari buruzko hitzaldi-zikloa

Urriaren 20ra arte egongo da ikusgai Bilboko Arte Ederren Museoan "Zuloaga (1870-1945)" erakusketa eta, horren harira, margolari eibartarraren bizitza eta obrari buruzko hiru hitzaldi emango dituzte Mikel Lertxundi Galiana eta Javier Novo Gonzalez erakusketaren komisarioek: irailaren 18an "Zuloaga Zuloagaren aurretik (1870-1898)" izenburuko emango dute, 25ean "Zuloaga (1898-1924)" izeneko eta urriaren 2an "Zuloaga Zuloagaren ondoren (1925-1945)" izenburukoarekin itxiko dute zikloa. Hiru hitzaldiak 19:00etan hasiko dira, Auditoriumean.



Bien Aparecida Ama Birjinaren jaiak

Eibarko Kantabriako Etxeak Bien Aparecida Ama Birjinaren omenezko jaiak ospatuko ditu, irailaren 14an 11:00etan Unben jokatu den alebin foball txapelketarekin hasiko den egitarauarekin. Irailaren 15ean, berriz, 12:00etan meza ospatuko dute San Andres elizan eta ondoren, 14:00etan, Jardiñetako tabernan piskolabisa eskainiko zaie bazkide eta lagunei. Irailaren 21ean, 14:00etan bazkaria egingo dute Ipuruako bolatokian (bertan edo Jardiñetako tabernan eman daiteke izena) eta 16:30ean toka eta igel-tokan jokatzeko aukera izango dute animatzen direnek. Eta irailaren 28an, jaiak agurtzeko, Puerto Chico taldeak kontzertua emango du, 20:00etan San Pio X.a elizan eta 21:00etan piskolabisa emango dute Ipuruako bolatokian.

GREGORIO ALBERDI OSORO "GOIO"

2. urteurrena: 2017-VIII-31



"Betirako gure bihotzetan"

SENITARTEKOEN PARTEZ



hildakoak

- **Jorge Astigarraga Zabala.**
61 urte. 2019-VII-1.
- **Eulalia Bastida Nicolas.**
84 urte. 2019-VII-2.
- **Jose Luis De los Toyos Nazabal.**
58 urte. 2019-VII-2.
- **Lourdes Varga Carmona.**
64 urte. 2019-VII-5.
- **Rosario Txurruka Osa.**
89 urte. 2019-VII-5.
- **Jose Antonio Gorostegi Arana.**
42 urte. 2019-VII-5.
- **Javier Aranzeta Txopitea.**
82 urte. 2019-VII-8.
- **Felicitas Etxeberria Elorza.**
91 urte. 2019-VII-11.
- **Felix Iriondo Salaberria.**
58 urte. 2019-VII-11.
- **Maritxu Del Barrio Agirrebeña.**
97 urte. 2019-VII-13.
- **Ignacio Iparragirre Adrian.**
61 urte. 2019-VII-15.
- **Mª Jose Bolunburu Alberdi.**
65 urte. 2019-VII-17.
- **Isabel Maria de Sousa.**
56 urte. 2019-VII-21.
- **Maribel Vitoriano Diaz de Alda.**
87 urte. 2019-VII-22.
- **Jose Pedros Molina.**
55 urte. 2019-VII-23.
- **Maria Etxaniz Muguruza.**
92 urte. 2019-VII-23.
- **Arrate Otaleku Jauregi.**
84 urte. 2019-VII-24.
- **Luisa Agirre Galdona.**
91 urte. 2019-VII-25.
- **Josefina Mendiola Malaxetxeberria.**
73 urte. 2019-VII-25.
- **Juana Urizar San Martin.**
93 urte. 2019-VII-26.
- **Consuelo Parra Martinez.**
44 urte. 2019-VII-27.
- **Isaac Sanchez Sanchez.**
83 urte. 2019-VII-28.
- **Miren Zumelaga Azkarate-Askasua.**
90 urte. 2019-VII-29.
- **Consuelo Ederra Glaria.**
92 urte. 2019-VII-30.
- **Carmen Gonzalez Rubio.**
94 urte. 2019-VII-30.
- **Teresa Iralagoitia Mendibe.**
77 urte. 2019-VII-31.
- **Julia Ruiz Alonso.**
95 urte. 2019-VIII-2.
- **Angela Cañizares Ruiz.**
81 urte. 2019-VIII-4.
- **Fernando Muñoz Suarez.**
76 urte. 2019-VIII-5.
- **Hector Arretxe Ugarteberu.**
69 urte. 2019-VIII-5.
- **Manuel Castaño Gonzalez.**
82 urte. 2019-VIII-6.
- **Margarita Kerejeta Larrañaga.**
87 urte. 2019-VIII-7.
- **Felix Arakistain Iriondo.**
80 urte. 2019-VIII-8.
- **Monchy Peypoch Oiarzabal.**
81 urte. 2019-VIII-9.
- **Vicenta Iturriza Petralanda.**
91 urte. 2019-VIII-9.
- **Clotilde Garcia Fernandez.**
90 urte. 2019-VIII-9.
- **Ricardo Morenza Perez.**
91 urte. 2019-VIII-9.
- **Isidro Gorosabel Belar.**
85 urte. 2019-VIII-10.
- **Luis Mª Adot Perea.**
87 urte. 2019-VIII-11.
- **Santiago Dominguez Garcia.**
59 urte. 2019-VIII-11.
- **Manuela Ezama Ibarbia.**
95 urte. 2019-VIII-11.
- **Irene Del Palacio Gutierrez.**
85 urte. 2019-VIII-14.
- **Mª Luisa Seral Axpe.**
86 urte. 2019-VIII-15.
- **Aureliano Bogajo Chico.**
74 urte. 2019-VIII-19.
- **Juan Muñoz Diaz.**
73 urte. 2019-VIII-19.
- **Angelita Ugarteberu Totorikaguena.**
87 urte. 2019-VIII-20.
- **Emerita Agustin Maestro.**
82 urte. 2019-VIII-20.
- **Mariasun Baque Atorrasagasti.**
67 urte. 2019-VIII-23.
- **Jesus Martinez Cervino.**
66 urte. 2019-VIII-23.
- **Alfredo Zenarruzabeitia Martinez.**
83 urte. 2019-VIII-25.
- **Mercedes Vilariño Nuñez.**
93 urte. 2019-VIII-25.
- **Alicia Loiola Pascual.**
90 urte. 2019-VIII-28.
- **Jose Mª Arriaga Elkoro-iribe.**
67 urte. 2019-VIII-29.
- **Pio Mateo Perez.**
92 urte. 2019-VIII-30.
- **Lorea Badiola Berridi.**
86 urte. 2019-VIII-31.
- **Adelia Aginako Idigoras.**
88 urte. 2019-IX-1.
- **Victoria Larrañaga Aranburu.**
91 urte. 2019-IX-2.
- **Mª Teresa Bolunburu Aizpiri.**
95 urte. 2019-IX-2.
- **Lorenzo Beltran Puente.**
87 urte. 2019-IX-3.
- **Jose Santamaria Soto.**
88 urte. 2019-IX-3.
- **Angel Fontaneda Fontaneda.**
78 urte. 2019-IX-3.
- **Ekhi Arriola Oregi.** 2019-VII-8.
- **Hodei Sanchez Taboada.** 2019-VII-11.
- **Julen Diaz Ormaetxea.** 2019-VII-16.
- **Albino Pereira Gil.** 2019-VII-16.
- **Eki Albistegi Larrañaga.** 2018-VII-18.
- **Martina Balediola Sanchez.** 2019-VII-19.
- **Walid El Fatehy.** 2019-VII-19.
- **Mikel Dieguez Martinez.** 2019-VII-20.
- **Eneko Garramiola Kaperotxipi.** 2019-VII-20.
- **Muntaha Saoib.** 2019-VII-21.
- **Mara Treviño Azkue.** 2019-VII-23.
- **El Mehdi Lamaiz Ofakir.** 2019-VII-23.
- **Eric Muñoz Quero.** 2019-VII-23.
- **Ariane Lamas Fernandez.** 2019-VII-29.
- **Hayat Yaou El Aarrass.** 2019-VII-29.
- **Salma El Moussaoui.** 2019-VIII-1.

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Andretxea.....	943 70 08 28
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Eibar Ospitalea.....	943 03 29 00
Mendaro ospitala.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren.....	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa.....	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.....	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...	699 37 75 20

farmaziak

Barixakua 6
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
Zapatua 7
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
Domeka 8
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
Astlehena 9
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
Martitzena 10
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
Eguaztena 11
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
Eguena 12
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
Barixakua 13
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
GAUEZ BETI - 2019AN-
Zulueta (S. Agustin, 5)

jaiotakoak

- **Ortzi Larrañaga Martinez.** 2019-VIII-2.
- **Nikole Teruelo Vicente.** 2019-VIII-7.
- **Roque Iriondo Santos.** 2019-VIII-8.
- **Erik Iglesias Geraldino.** 2019-VIII-11.
- **Eneko Lopez Abarrategi.** 2019-VIII-12.
- **Doha Lamjaffar.** 2019-VIII-14.
- **Aiur Zabaleta Anguera.** 2019-VIII-15.
- **Sara El Idrissi.** 2019-VIII-17.
- **June Fuentes Madina.** 2019-VIII-21.
- **Aiza Figueroa Agurcia.** 2019-VIII-21.
- **Chloe Llanos Iglesias.** 2019-VIII-23.
- **Sara Bolunburu Garcés.** 2019-VIII-23.
- **Maia Gesalaga Beristain.** 2019-VIII-28.
- **Martina Acha Gomez.** 2019-VIII-28.
- **Julen Medina Fernandez.** 2019-VIII-31.
- **Maddi Bocos Montero.** 2019-VIII-31.

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, HAIZEA, zure 2. urtebetetzian! Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Julenen partez.



Zorionak, XABIER!!, hillaren 4an 4 urte egin zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Josuren partez.




Zorionak, MAREN, abuztuaren 29xan 8 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat tio lñigo eta amama Arantxaren partez.



Zorionak, ALAITZ, abuztuaren 14an 7 urte bete zenduaz-en-eta. Musu bat etxekuen eta, batez be, zure neba Gaizkaren partez.



Zorionak, MONICA, abuztuaren 26xan urtiak bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat lagun eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IAN, gure txikitxuak urtetxua bete zeban-eta abuztuaren 27xan. Musu bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, OIER, atzo 3 urte bete zenduaz-en-eta. Musu pillua famelixa guztiaren partez.



Zorionak, OSKITZ Ruiz, atzo 2 urte bete zenduaz-en-eta. Aitta, ama, aitxitxa-amamak eta tia Lauriren partez.



Zorionak, EKHI Leon, astelehenian 2 urte beteko dozuzelako. Musu haundi bat famelixaren partetik.



Zorionak, EKAIN, 12 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, IXONE, gure printzesak bixar 7 urte beteko dittu-eta. Musu haundi bat famelixakuen partez.




Zorionak, MANEX (abuztuaren 8xan, 6 urte), mutil haundi, eta amatxo SUSANA, urtiak bete dozuez-eta. Musu haundi bana.



DANEL, mutil haundi, bixar 5 urte beteko dozuz! Askoko-asko maitte zaittugu! Zorionak famelixaren eta, batez be, MARKELen partez!



Zorionak, MAIALEN, gaur 2 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, bikote!!! DANEL, abuztuaren 5ian urtetxua bete zenduan-eta!! Eta aitxitxa JUAN, gaur zure urtebetetzian!!! Musu asko.

5		6		9	7		
						2	
			1	8			9
	7			2		6	
		4		6		3	
	5		8				7
7			9	3			
		1					
			4	8		7	5

SUDOKUA

AURREKOAREN
EMAITZA

5	3	4	1	7	2	6	9	8
9	1	6	4	3	8	7	2	5
8	7	2	5	6	9	4	1	3
2	9	7	3	4	6	8	5	1
1	6	8	9	5	7	2	3	4
4	5	3	2	8	1	9	7	6
6	8	1	7	2	5	3	4	9
3	2	5	6	9	4	1	8	7
7	4	9	8	1	3	5	6	2

i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai J. Etxeberria kalean. 3 logela, 2 egongela, sukaldea eta komuna. 85 m². Kalefakzioarekin. Tel. 615-781231.
- Pisu argitsua salgai T. Etxebarria kalean. 95 m². 2 komunekin. Zure gustura diseinatu eta antolatze moduan. Tel. 686-745112.

1.2. Errentan

- Etxe zoragarria alokagai Maria Cristina hotelaren parean Donostiako zinemaldiaren aste osorako. Baita bigarren hamabostaldirako ere. Tel. 689-232882.
- Pisu bifamiliarra alokagai Txonta 45ean. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Guztiz jantzita. Deitu 20:00etatik aurrera. Tel. 943-248206.
- Pisu zoragarria alokagai uztailen eta irailen Donostian, Kursaal eta Zurriolako hondartza ondoan. 2-3 logela, sukalde handia, jangela-egongela eta 2 komun. 3 igogailu, eskilara egokitua eta garajea etxe azpian. Aste baterako edo hilabete osorako alokatze aukera. Tel. 689-232882.
- Pisua hartuko nuke Eibarren alokairuan. Tel. 602-463828.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Karabana finkoa salgai Mutrikin (Santa Elena kanpian). Komuna, dutxa, abanxe eta 2 oherekin (1'50 eta 0'90). 5.500 euro. Tel. 639-629346 eta 676-102578.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garajea salgai San Juan kalean, Amaya-ko garajeetan. Tel. 679-843282.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da soziedadek garbitzeko eta gauze lan egiteko. Tel. 636-841158.
- Neska eskaintzen da arratsalde etxeak garbitzeko eta obretako azken lanak egiteko. Tel. 638-421827.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Baita gauze ere. Erreferentziak. Tel. 632-098382.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 645-487252.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 666-197831.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-850826.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 612-201719.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-537430.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 632-700803. Celia.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. 13 urteko esperientzia. Tel. 686-077564. Francisca.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 632-292690.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 688-714388.
- Emakume euskalduna eskaintzen da arratsalde (16:00-18:00) umeak zaintzeko. Tel. 687-114707.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Arreta sozio-sanitario tituluarekin. Tel. 631-502177.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. 15 urteko esperientzia. Tel. 667-060292. Sandra.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Esperientzia. Tel. 664-819748 eta 638-249775. Humberto.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. 12:00etatik 17:00etara. Tel. 603-874953.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta gauze ere. Tel. 631-980531.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 612-455854.
- Emakumezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko (Eusko Jaurilaritzen tituluarekin). 8 urteko esperientzia. Tel. 603-514085.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-012735.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 602-034495.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-906590.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 681-013032.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 652-668877.
- Neska eskaintzen da arratsalde nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 602-800266. Denia.
- Neska eskaintzen da abuztuan nagusiak zaintzeko. Tel. 654-154301.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 653-421151.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta eraikuntzan edo pintore jarduteko. Tel. 653-421159.
- Neska euskalduna eskaintzen da irailetik aurrera umeak zaintzeko. Magisteritza tituluarekin. Tel. 688-625803.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Sukaldari ona. Tel. 612-521729.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 610-633065.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 602-046346.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 697-665452.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Estetika ezagutzeekin. Tel. 632-267668.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-894983.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta igeltsero moduan. Tel. 602-025940.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta igeltsero moduan. Esperientzia. Tel. 631-894983.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta igeltsero moduan. Esperientzia. Tel. 622-277545 eta 617-740937.
- Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-142233.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 639-291780.
- Kamarera eskaintzen da Eibarren lan egiteko. Tel. 677-034344.
- Emakume euskalduna eskaintzen da irailetik aurrera umeak eskolara eramateko. Tel. 665-733162.
- Neska eskaintzen da manikura eta pedikura etxe-etxe egiteko, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 665-770886. Rosa.
- Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko: garbitzaile, banatzaile, igeltsero... Tel. 642-695602.

4.2. Langile bila

- Astebururako kamarera/o eta garbitzaile behar dira jatetxe batean. Tel. 943-121262.
- Sukaldaria behar da taberna batean. Tel. 665-308025.
- Neska euskalduna behar da umea zaintzeko, arratsalde 2 ordu inguru, astelehenetik barixakura. Erreferentziak eta esperientzia baloratuko dira. Tel. 676-105492.
- Neska/emakume euskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanetarako. Jardunaldi erdia (4 ordu inguru), astelehenetik barixakura. Erreferentziak eta esperientzia baloratuko dira. Tel. 676-105492.
- Kamarera/o eta sukalde-laguntzaile behar dira Eibarko taberna batean. Tel. 659-539861.
- Euskera dakien emakumezkoa behar da goizetan umea eskolara eramateko. Tel. 665-706006.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- DBH eta Batxilergo klaseak ematen dira. 4 lagunez osatutako taldeak gehienez. Tel. 685-739709.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Batxilergo 1. mailako liburuak salgai. D ereduak. Prezio onean. Tel. 605-711422.
- Gorpildun auklia salgai, motorrarekin. Behin erabilitako euritarako zakua opari. Tel. 615-781238.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

ZELETA BARAZKIAK



*Ekoizpen prozesuan
energia berriztagarriak
erabiltzen ditugu*



- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Ortutik mahaira: Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

Orain Eibarko
BM-n ere bagaude

Ekoizpenaren %100 hazte-zikloa zainduz eta tratamendu kimikoen erabilera saihestuz lortzen dugu

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. **609 35 76 19** • www.zeletabaserria.com

Irailaren 25^{era arte} MATRIKULA ZABALIK

Euskararekin Match!



19/20

Matrikula
epea zabalik
Plazo de
matriculación
abierto



UDAL
EUSKALTEGIAK
euskara ikasgai • euskara ikasgai

2019-20 ikasturtea

**- MAILA GUZTIETAKO
euskara ikastaroak**

16 urtetik
gorakoentzat

1. MAILA		2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA	
A1	A2	B1	B2	C1	C2
OINARRIZKO ERABILTZAILEA		ERABILTZAILE AURRERATUA		ERABILTZAILE ADITUA	

- Autoikaskuntza: **Bakarkako lana, tutoretzak eta mintzasalok (BOGA programa)**
- Etorkinentzako harrera-ikastaroak (**AISA**)
- Azterketa prestakuntza
- **HABEko** titulu ofizialak

ordutegi zabalak

**TARIFA BEREZIAK: %20, %50 eta %75eko deskontua
KONTSULTATU**

Eibarko
Udal Euskaltegia
35 urte zuekin!



Bista Eder, 10 -PORTALEA-
euskaltegia@eibar.eus
Tfnoa: 943 70 09 12
Faxa: 943 82 00 89





EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



Hizkuntza Eskola Ofizialak
Escuelas Oficiales de Idiomas

Eibarko Hizkuntza Eskola




MATRIKULAZIO
OFIZIALA:
**Irailaren
1etik 18ra**

KOKAPEN BERRIA: Otaola, 29

Edozein adin egokia delako hizkuntzak ikasteko
DEUTSCH ENGLISH EUSKARA FRANÇAIS
gazte eta jubilatuek ere badaukazue lekua gure eskolan

IKASTARO ERDIPRESENTZIALAK

alemanez, ingelesez eta euskaraz
– eskolan eta on line (Moodle plataforma) –



Arrasaten eta Azkoitian

**GELA
DESPLAZATUAK**

ere badauzkagu



***14 urtetik gora:** *Frantsesa eta Alemana* (eskolan Ingelesa atzerriko lehen hizkuntza bada).
16tik gora: Edozein hizkuntza.

**14 urtetik
gora***

Matrikula on-line egin beharko da ondorengo web orrian:

www.eoieibarheo.hezkuntza.net
IKASGUNEA plataformaren bitartez

Ikasturte osoaren prezioa: 72,36 euro

